



ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

Hezkuntza eta Kultura Ministerioko bekaduna
Deustuko Unibertsitatea
Unibertsitateen etorbidea 24
48007 Bilbo
iordenan@der.deusto.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 33-54]

Sarrera eguna: 2003.07.07
Onarpen eguna: 2004.05.10

Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: epailetzara sarrera (2)

(The judicial organisation of the USA: entering the judiciary [2])

Artikulu hau, aldizkari honen 10. zenbakian aurkeztutakoaren bigarren zatia da. Oraingo honetan, AEBetako epaileen inguruan arituko gara, berauek aukeratzeko bideetan indar eginez. Fenomenoa bitxia da oso: Federazioko Estatu bakoitzak epailetzara sartzeko bere bide propioa izanik, orotara 51 erreklutazio bide dauzkagu aurrean. Gainera, AEBetako legelarien heziketa eta auzitegi federaletako epaileen aukeraketa ere ikusiko ditugu.

Giltza hitzak: Heziketa. Epai federala. Estatu epailea. *Election. Appointment. Merit selection.*

En el presente artículo, que forma la segunda parte del trabajo presentado en el número 10 de esta misma revista, estudiaremos la figura de los jueces americanos, poniendo especial énfasis en sus métodos de reclutación. Nos encontramos ante un fenómeno curioso: dado que cada Estado que compone la Federación cuenta con su propio método de ingreso en la judicatura, en total contabilizamos 51 vías de reclutación. Analizaremos, además, la educación que reciben los juristas americanos y la elección de los jueces de los órganos federales.

Palabras clave: Educación. Juez federal. Juez estatal. *Election. Appointment. Merit selection.*

Dans cet article, qui représente la seconde partie du travail présenté dans le numéro 10 de cette même revue, nous étudierons la figure des juges américains, en insistant spécialement sur leurs méthodes de recrutement. Nous nous trouvons face à un phénomène curieux: étant donné que chaque Etat qui compose la Fédération compte sur sa propre méthode d'admission dans la magistrature, on compte 51 façon de recrutement. Nous analyserons, de plus, l'éducation que reçoivent les juristes américains et l'élection des juges des organismes fédéraux.

Mots clés: Éducation. Juge fédéral. Juge d'état. *Election. Appointment. Merit selection.*



1. Sarrera. 2. Amerikar Estatu Batuetako epailetzaren ezaugarri nagusiak. 3. Epailetzaren iturria: lege jarduera ezberdinak: 3.1. Lege ikasketak. 3.2. Bar-ean sartzea eta honen garrantzia ogibidearen zuzendaritzan. 3.3. Zuzenbidea ikasi dutenak zertan jarduten dira? 4. Epaile federalen aukeraketa. 5. Estatu Federatuetako epaileen aukeraketa: 5.1. Kontzeptu orokorrak: aukeraketa sistema ezberdinak. 5.2. *Election* edo aukeraketa. 5.3. *Appointment* edo izendapena. 5.4. *Merit selection* edo merituen araberakoa. 5.5. Estatueta epaileen bazterketa edo *removal*. 6. Ondorioak eta balorazioa.

1. Sarrera¹

Ondorengo lerroetan, AEBetako auzitegi antolaketan epaileak nola erreklutatzen diren aztertuko dugu. Espainian alderdi politiko desberdinek gai honen inguruan eztabaida sakona duten momento hau egokia izan liteke beste lurralde batzuetako erreklutazio sistemetan erreparatzeko. Ereduak bilatu eta aztertu nahi baditugu, AEBetako auzitegi antolaketa kontuan izatekoa da, ez bakarrik bertan ematen den auzitegi antolaketa aniztasunagatik, 51 auzitegi antolaketa baitaude², edo beraien artean desberdintasuna delako nagusi, baizik eta beren erreklutazio erakguretatik arras desberdinak direlako.

Hasiera honetan argi geratu behar da artikulua hau lehenengo baten bigarren zatia dela; horregatik, nahiz eta jarraian datozen lerroak aurrekoak irakurri gabe ere uler daitezkeen, berauen ulermen osorako aurretik *Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: lerro nagusiak* (1)³ irakurtzea gomendatzen dugu.

Artikulu honen bidean jorratuko ditugun azpigai nagusiak ezarri baino lehen, ohar bat: gaia arras konplexua da, jada aipatu dugun bezalaxe Federazioa osatzen duen Estatu bakoitzean epailetzara sartzeko bideek ezaugarri eta matizazio propioak dituztelako. Guk Estatu guztietan erabiltzen diren sistemak bateratzen dituen metodologia erabiliko dugu, beroni jarraituz hiru erreklutazio sistema nagusi desberdinduko ditugularik (5. puntua). Horrez gain, eta arinago, Federazio mailako auzitegiaren aritzen diren epaileak nola aukeratzen diren ikusiko dugu (4. puntua). Bigarren puntu hau ez da hain zaila, Federazio mailako epai organo ezberdinak osatzen dituzten epaileak aukeratzeko (*District Court judges*,

Appellate Court judges eta *Supreme Court judges* alegia) bide bera erabiltzen delako. Hala ere, berehala konturatuko garenez, organoz organo eta mailaz maila, desberdintasunak izan badira.

Aipatutako bi azpigai hauek jorratu aurretik, beste batean geldituko gara: AEBetako Zuzenbide ikasketetan, hauek bukatzean Zuzenbidean lizentziatuek bete ditzaketen lanpostuetan eta, oro har, lanbidearen antolaketan (3. puntua). Zergatik interesatzen zaigu azken hau? Ingalaterran eta Galesen bezala⁴ –zerbaitengatik dira Estatu hori eta AEBak *Common law* familia juridikoaren parte!–, epaileak, lege munduan, berau zabaltasunik handienean hartuta, lanean dabilzan Zuzenbidean lizentziatuen artean aukeratzen direlako.

Esandako puntu horien guztien aurretik, eta hasieratik AEBetako epaileen irudi orokor bat izateko eta beren erreklutazio sistemak errazago ulertzeko, beren ezaugarri orokorrak jorratuko ditugu (2. puntua).

Azkenik, eta artikulua honek ukituko dituen puntuen aurkezpenarekin bukatzeko, esan behar nahiz eta beste artikulua baterako gaia izan –hona honetan, beste legelari euskaldun bati luzatzen diogu horretarako gonbita–, bai epaile federalak, bai Estatu desberdinetakoak aztertzean, berauek beren kargutik kentzeko dauden bideetan ere geldituko garela, oso labur bada ere.

2. Amerikar Estatu Batuetako epailetzaren ezaugarri nagusiak

Ondoren, argazki bat aterako diogu AEBetako epailetza osatzen duen epaileetako bati. Irudi hori osatzen duten ezaugarriak lurralde horretako epaile guztiei, bai federalei, bai Estatutakoei, aplikatu dakizkieke, tokian tokiko eta mementoan mementoko salbuespenekin.

Lehenengo eta behin, eta AEBetako epaileak margozen hasteko orduan, ezin zaigu pasatu *Common law*-ren barnean kokatzen den ordenamendu juridiko horretan epaileek duten garrantzia. Epaileek hartzen dituzten erabakiak aurrekari bihurtzen dira, *judicial precedent* alegia; Zuzenbidearen iturri dira, eta epaileek funtzio sortzailea betetzen dute ordenamendu juridikoan. Zentzu honetan, legegileak edo politikagileak direla (*law maker, policy maker*) esan ohi da⁵. Datu honekin erraz asko uler daiteke AEBetako epaile

1. Artikulu hau, AEBetan, Massachusetts Estatuan kokatutako *Harvard Law Faculty*-n, Espainiar Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren dirulaguntzarekin, 2002ko uztaila eta iraila bitartean *academic visitor* gisa egindako egonaldia fruitu da.
2. Federazioarena eta berau osatzen duten Estatu guztiena. Honi auzitegi bikotasuna edo dualitatea deitzen zaio.
3. *Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 10. zenbakia; 57-77 orr.
4. Ikus ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. "Ingalaterran eta Galesen epailetzara sarrera", In: *Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 9. zenbakia.
5. Ikus ALDISERT, R. J. *The judicial process*, Minnesota: West Publishing Co, 1996; 121-127 orr.

orori Zuzenbidean aditua izatea galdatzea. Hau ez da beti horrela izan, jatorrizko amerikar kolonietan epaileak Zuzenbidean ezjakinak baitziren. Garai haietan uste zen komunitatea ondo ezagutzen zuena, sen onaren agindupean, epaile egozia izan zitekeela. Urteen joan-etorrian, amerikar gizartea garatu ahala, amerikarrek erraz asko ikusi zuten gizarte gatazkatsu hartan liskarrak justiziaren ildotik ebazteko, epaileek Zuzenbidea menperatzea eta berau aplikatuz gatazkak konpontzea ezinbestekoa zela⁶. Aipatutako aldaketaz geroztik, XVIII. mendeaz hona, epaile guztiak juristak dira, baina –eta hemen doakizue artikuluhonen oinarrietako bat– juristen oso kopuru txikia iristen da egun batean epaile izatera.

Honi guztiari matizazio bakarra egin behar diogu: Arkansas, Delaware, Louisiana, Montana, Ohio eta South Dakota Estatuetakoa behe mailako eskuduntza mugatuko zenbait auzitegitan (*Justice of Peace, Mayor's Peace, Aldermen's courts*) zerbitzatzen duten epaileak Zuzenbidean ezjakinak dira. Azken hauek oso salbuespen txikia dira, eta nazio guztian kritika ugari jasotzen dituzte⁷.

Beraz, eta esan berri denez, amerikar epaile jurista da, baina ez dago epaile bihurtzeko prestaketa berezirik. Epaileak, legearen eta legeriaren inguruan antolatzen diren ogibide desberdinetatik –gehienbat abokatuetatik!–, politika eta administrazioa barne, erreklutatzen dira⁸. Ez dago azterketa berezirik epailetzan sartzeko⁹. Gizon edo emakume bat epaile bihurtzeko urte askoz eta arrakastaz legearen inguruko ogibide batean aritu ondoren. Hori dela eta, normalean epaileak 40 urtetik gorakoak izaten dira.

AEBetako epailetzaren beste ezaugarri bat, epaile karrerarik eza da. Ez dute ezagutzen sistema kontinentaleko hierarkia judizialaren barnean hain esanguratsua den promozio edo igoera, nahiz eta epaile batzuk beheragoko auzitegietatik erreklutatzen diren¹⁰. Ameriketan, behe mailako auzitegiatan jarduten duten epaileek ez dute goragoko batera igotzeko asmorik¹¹, eta,aldi berean, posible da inoiz epaile bezala aritu ez den pertsona bat Estatu bateko Auzitegi Goreneko edo, are gehiago, Federazioko *Supreme Court*-eko epaile bihurtzea; izan ere, epaileak auzitegi antolaketa-

ren edozein mailatan sar baitaitezke (behekoa, gorenekoa,...)¹². Horrelakoa da AEBetako epailetzara sarrera, kontinenteko juristentzat harrigarria gerta badaiteke ere.

Baina *civil law*-aren inguruan egituratzen diren ordenamendu juridikoetan aditu diren legelari-entzat, AEBetako auzitegi antolaketa desberdinen barneko elementurik arraroena, duda izpirik gabe, epaileak aukeratzeko erabiltzen dituzten bideak dira. Honetaz luze eta zabal arituko gara, baina memento honetan joan bitez bi aurrerapen. Batetik, epaileen hautaketa metodo edo bideei so eginez, betiko bi sistema nagusiak desberdindu behar ditugu, Federazioko epaileen hautaketa alde batetik, eta Estatuetakoa bestetik, nahiz eta, ikusiko dugunez, Estaturen batean Federazioko sistema kopiatzen den. Bestetik, bi kasuetan epaileen aukeraketa prozesu konplexu eta politikoa da, eta *bar* edo abokatuen elkargoaren eragin handia dute. Azken honetaz ere geroago arituko gara. Oraingoan, Espainian pentsaezina den datu bat: epaileek, nahiz eta epaile lanetan ibili, *bar*-eko kide izaten jarraitzen dute.

Demagun epailea, Federala zein Estatala, berehala aztertuko dugun bideren bati jarraituz hautatua izan dela. Epaile horrek orokorrean Zuzenbidearen arlo guztiei dagozkien kasuak eza gutuko ditu. Beste hitz batzuetan: salbuespen gutxi batzuk kenduta (auzitegi federaletan *tax judges, bankruptcy judges...* eta Estatu auzitegiatan *family judges, traffic judges...*), epaileak ez dira espezialistak¹³.

Epaile hauek, orokorrean, auzitegi jakin bateko lanpostu edo plaza zehatz baterako izendatzen dira; izan ere, beraien aukeraketarako tokian tokiko auzitegi bakoitzari dagokion lur eremuaren esparrua hartzen da¹⁴. Puntu honetan, AEBetako epaile antolaketa ezberdinen beste berezitasun garrantzitsu bat aurkitzen dugu: Estatuetakoa epaileak –eta, berehala, gauza bera esango dugu abokatu ez ere– Estatu zehatz horretarako izendatzen dira, eta Estatu horren lur eremuan bakarrik aintzatesten zaie beren *autoritas*-a. Esandakoa egitura federalaren ezaugarri arrunt bat da: Ohioko epaile batek bere egoitza Missourira aldatzen badu, azken Estatu honetan

6. BODENHEIMER, Edgar; OAKLEY, John Bilyeu; LOVE, Jean C. *An introduction to the anglo-american legal system. Readings and cases*. 2. argitalpena, Minnesota: West Publishing Company, 1988; 47-48 orr.
7. Ez dugu puntu honetan gehiago sakonduko, artikuluaeren lehenengo partean luze mintzatu ginelako horretaz.
8. PIZZORUSSO, Alessandro. *Curso de Derecho Comparado*, Barcelona: Ariel Derecho, 1987; 135-137 orr.
9. MECHAN, L. R. (zuzendaria). *The federal court system in the United States. An introduction for judges and judicial administrators in other countries*, Washington, D.C.: Administrative Office of the US Courts, 2000; 18. or.
10. HAY, Peter. *Introduction to US Law*, 2. argitalpena, New Hampshire: Butterworth Legal Publishers, 1991; 38. or. Zentzu berean, ikus LEVASSEUR, A.A. *Droit des États-Unis*, Paris: éditions Dalloz, 1994; 29. or.
11. Virginian, salbuespen bezala, *appellate judges*-ak *trial judges*-en artean aukeratzeko ohitura dago, baina ohitura hori ez dago beste Estatuetan zabal-duta.
12. MEADOR D. J. *American courts*, 2. argitalpena, Minnesota: West Group, 2000; 51. or.
13. MORRISON, A. B. *Fundamentals of american law*, Oxford: Oxford University Press, 1996; 58. or.
14. Horrela baieztatzen du NEUVAUER, D. W. *Judicial process: law, courts and politics in the USA*, 2. argitalpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 174. or.

ez da epaile izango. Era berean, Federazioko auzitegi baterako izendatzen den epaile bat ezin izanen da Estaturen bateko epai organoan aritu. Beraz, bai Federazioko epaileak, bai Estatukoak, organo konkretu baterako izendatzen dira, eta normalean beraietan jardungo dira epaile gisa lanean ibiliko diren urte guztietan.

Urteez ari garela, AEBetan epaile batek bere postuan –epaile lanetan alegia– jarduten duen denbora tarte edo epeari *tenure* edo *term* deitzen zaio. Epaile federalek, oro har auzitegi berezietarako aipatuko ditugun salbuespenak at, *life appointment* daukate; hau da, bizitza osoarako izendatzen dira. Honek ez du esan nahi beren kargutik kentzeko aukerarik ez dagoenik. Honen inguruan bere mementoan sakonduko dugu. Estatutako epaileak, aldiz, salbuespen oso gutxi-rekin, urte batzuetarako izendatzen dira, eta normalean 70 urterekin hartu behar izaten dute erretiroa.

Beraien soldatari dagokionez, esan behar da diru ordainak onak direla auzitegi gorenetan, baina, orokorrean, abokatu on batenak baino txikiagoak direla. Horregatik, abokatu askok nahiago dute abokatutzan aritu, epaile lanetan baino¹⁵. Hala ere, eta lansarien kontua alde batera utzita, epaile guztiek, baina batez ere Federazio mailako auzitegietan jarduten direnek, oso ospe eta izen ona daukate. “Your Honor” tratua jasotzen dute, eta abokatu askorentzat ohore horrek ez du preziorik.

Epaileen lehen argazki honekin bukatzeko, beraien jarduera eta portaeraren arauketan sakonduko dugu. Materia hau legeek (bai Federalek, bai tokian tokiko Estatukoek) eta Kode Etikoek arautzen dute.

Legeek, interes gatazka bat dela eta epailek kasu baten ezagutzari uko noiz egin behar dioten ezartzen dute (*disqualifying conflict of interest*), abstentzioa (*self-disqualification*) eta errefusatzea (*recusal*) arautuz. Gainera, eta beraien independentzia eta lanerako askatasuna bermatzeko, epaileei ez zaie erantzukizun zibilik egozten epai lanetan egindako ekintzengatik edo esandakoagatik, nahiz eta iruzur edo ustelkeria egin¹⁶. Hauek guztiak ulerterrazak dira hemengo jurista batentzat, gure ordenamendu juridikoan ere era batera edo bestera gauza bera babesten delako. Ostera, Kode Etikoen asuntua bitxiagoa gerta dakiguke.

Aipaturiko Kodea, *American Bar Association*-ak (ABA) –berehala azalduko dugunez, AEBetako *bar* edo abokatuen elkargoen elkarteak– epaileek jarraitu beharreko portaera etikoei buruz emanikoa da: *The Code of Judicial Conduct* –lehenengo bertsioa 1972. urtekoa, eta azkena 1990ekoa–. Kode honek epaileen bizitza laboral eta pertsonala arautzen ditu, beren lanetan lizunkeria (*impropriety*) eta lizunkeriaren itxura ekiditeko asmoz¹⁷. Kode honen arabera, epaileek auzitegietatik kanpo egiten dituzten ekintzek ezin dute inoiz beren epaitzeko gaitasuna eta inpartzialtasuna zalantzatan jarri¹⁸. Horrela, eta adibide gisa, debekatuta daukate arraza, sexua, erlijioa edo jatorriaren aitzakiapean edonolako diskriminazioa egiten edo bultzatzen duten *club* edo erakundeetako kide izatea¹⁹. Horrez gain, aipatutako Kodeak *full-time*-an, lansai osoan alegia, aritzen diren epaileei abokatu lanetan aritzea galarazten die²⁰. Geroago aipatuko ditugu betebeharrak hauek betetzen ez badituzte pairatu beharreko ondorioak.

3. Epailtzaren iturria: lege jarduera ezberdinak

Orain arte ikusitakoarekin, argi geratu da AEBetako epaileak, federalak eta Estatu desberdinetakoak, Zuzenbidean ikasiak diren pertsonen artean aukeratzeko direla, berauen lana edozein izanda ere (abokatu, funtzionario, enpresa gizon edo emakume, irakasle...). Puntu honetan *stop* bat egingo dugu. Epaileen aukeraketa metodoak sakonean aztertu aurretik, zenbait datu jakin behar ditugu: nola antolatzen dira lege ikasketak AEBetan? Zer da zehazki *bar*-a? Nola egituratzen da eta zein da bere lana? Abokatutzan jarduten ez diren lege gizon eta emakumeak zertan aritzen dira? Hirugarren puntu honetan galdera hauei guztiei erantzuten ahalegingo gara.

3.1. Lege ikasketak

XVIII. mendearen hasieran, lehen kolonia amerikarrek (Virginian eta mendebaldeko kostaldean kokaturikoek) ordurarteko isolamendua apurtu eta Ingalaterrarekin merkataritza harremanak izaten hasi zirenean agertu ziren lehen amerikar juristak. Hauek Ingalaterrako *Inns of Court*-etan hezi ziren²¹. Garai hartan, Zuzenbide ikasleak abokatuen bulegoetan *clerk* bezala ari-

15. BALDWIN, S. E. *The american judiciary*, Florida: WMW Gaunt and sons, Inc, 1991; 329. or.

16. WILLARD HURST, J. *The growth of American Law. The law makers*. New Jersey: the lawbook exchange, Ltd. Union, 2001; 123. or. Ikus, baita, WEINTEIN, M. *Summary of american law*, 2. argitalpena, New York: The lawyers co-operative publishing, Co., 1988; 316. or.

17. *The Code of judicial conduct 1990*, 2) canon.

18. *The Code of judicial conduct 1990*, 4 A) canon.

19. *The Code of judicial conduct 1990*, 2 C) canon.

20. *The Code of judicial conduct 1990*, 4 G) canon.

21. Ikus ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. “Ingalaterran eta Galesen epailtzara sarrera”, In: *Eleria Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 10. zenbakia; 57-77 orr.

tzen ziren (“*reading law*”), lanbidea ikastearen truk esperientziadun abokatuei diru mordoak ordainduz²². Lehen jurista hauen heziketan, oso garrantzitsuak izan ziren Blackston-en *Ingalaterrako Zuzenbideari iruzkinak* bezalako obrak.

Baina merkataritzan, bere ekonomiaren oinarri egin zuen iparralde arras industrializatua- ren eta nekazaritza munduko hegoalde aristokrati- koaren arteko guda zibila (1860-1865) eta gero, AEBetan egun arte iraun duen garapen ekonomi- ko izugarria eman zen. Loraldi ekonomikoak lege jardueraren gorakada nabarmena ekarri zuen. Bizitza ekonomiko berri hartako arlo guztiak arau- tu egin behar ziren, eta, horietan sortuko ziren lis- karrak konpontzeko, lege gizon –garai horretan emakumeentzat pentsaezina zen lanbidean ari- tzea– prestu eta ondo hornituak behar ziren. Honek guztiak legelarien heziketa sistemaren aldaketa egitera derrigortu zuen. Legelarien hezi- ketan egindako aldaketen inguruan inor aipatze- kotan, *Harvard Law School*-eko Joseph Story irakaslea aipatu behar dugu. Gizon hau, Zuzenbide ikasketei oraindik egun indarrean dagoen orientazio praktikoa, errealistagoa emateaz arduratu zen²³.

Azter ditzagun orain AEBetako legelarien ikasketa plana eta Zuzenbide fakultateetan jarrai- tzen den irakaskuntza metodoa.

Logikoa denez, unibertsitatean Zuzenbidea ikasten hasi orduko, ikasleek lehenengo beste ikasketa batzuk burutu behar dituzte. Ikasleek 8 urte egin behar dituzte oinarrizko heziketan (*grammar school* edo *primary*) eta beste 4 biga- rren hezkuntzan (*High School*). Horiek guztiak gainditu ondoren sartzen dira unibertsitatea, baina ez Zuzenbide ikasketetara. Izan ere, Zuzenbide ikasketak graduondoko ikasketak (*post-graduate*) dira, eta horietara sartu ahal iza- teko ikasleek lehen mailako ikasketak (*graduate level* edo *undergraduate college degree*) burutu behar dituzte. Horietan kultura orokorra ikasten dute²⁴, eta gero, Zuzenbideko *post graduate*-an, oinarri horien gainean, Zuzenbidea irakasten zaie.

Ikaslea 21 edo 22 urterekin sartzen da Zuzenbide fakultatean, eta 24 edo 26rekin ateratzen da, “*law degree*” tituluarekin (*Juris Doctor [J.D.]*). Zuzenbide fakultatean gutxienez 6 seihilabeteko ematen dituzte²⁵.

Orain dela urte batzuk gure ingurunean ger- tatzten zen bezala, Zuzenbidea ikastera sartzeko eskatzaile edo *applicants* kopurua handia denez, Zuzenbide fakultateetan onartzeko prozesua oso lehiatua izaten da. Zenbat eta ospe handiagoa izan unibertsitateak, orduan eta hautakor edo selektiboagoa izaten da. Oro har, Zuzenbide fakultateek beren ikasleak aukeratzeko *undergra- duate*-ko batez besteko nota izaten dute kontuan, eta askok gainera *Law school aptitude test* (LSAT) azterketa egiten diete²⁶.

Columbiako Unibertsitateak ez zituen bere geletan emakumeak 1927. urtera arte onartu, eta Harvardek 1950.era arte. Egoera zeharo aldatu zen 1970-80ko hamarkadetan, emakumeak uni- bertsitatean masiboki sartu zirenean.

Karrerako urteetan zehar gai juridiko des- berdinak ikasten dituzte, sarri askotan gradu mai- lan ikasitako ekonomia, soziologia, politika zientzia eta antzeko ikasgai propedeutikoak abia- puntu bezala hartuz. Lehenengo mailan derrigo- rrezko ikasgaiak ikasten dituzte²⁷, eta hurrengo bietan batez ere hautazkoak.

Amerikar Zuzenbide ikasle baten *curriculum*-ean azpimarragarriak iruditzen zaizki- gu *clinical programs* deritzen tutorizatutako irakas- gai praktikoak. Hautazko ikasgai hauetan epaiketa itxurak edo simulakroak egiten dituzte –epaileen aurrean ere aritzen dira!–, eta ikasleei kaudimen gabeko jendearen arazo juridikoak kudeatzeko aukera ematen zaie.

Ikasleak ikerketak egiten ohitzeko xedeaz, bigarren edo hirugarren mailan derrigorrean iker- keta lan bat (*paper*) egin behar dute, eta askotan argitara ematen dira. Oso famatuak dira fakultate- etako ikasleek egiten dituzten aldizkari juridikoak.

22. Garai bateko abokatuen prestakuntza sakontzeko, ikus NEUBAUER, D. W. *Judicial process: law, courts and politics in the USA*, bigarren argitaraldia, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 123. or; eta FRIEDMAN, L. M. *American law. An introduction*, 2. argitaraldia, New York: W.W. Norton and Company, 1998; 278-279. orr.

23. Gainera, eta berehala aztertuko dugunez, Ameriketako abokatu elkargoen (*bar*) elkarteak (*American Bar Association [ABA]*), 1878. urtean sortu zene- tik, ardura handia azaldu zuen lege ikasketekiko. Ardura horren adierazle, erakunde honek jaiotako eta berehala bere barnean heziketaren inguruan arituko zen atal bat sortu izana dugu. Urte batzuk beranduago, lege heziketa hobetzeko helburuarekin, atal horretatik etorriko zen *The Association of American Law Schools*.

Abokatuen prestakuntza eman den aldaketan sakontzeko, ikus STEVEN, R. *Law school: legal education in America from the 1850s to the 1980s*, Chapel Hill: University of North Carolina Press, 1983.

24. Zuzenbide fakultatera sartu ahal izateko, *college* edo unibertsitate batean graduiko ikasketak (*Bachelor of Arts, Bachelor of Science, Business Administration* edo *Engineering*) burutzen dituzte beste 3-4 ikasturtetan zehar. Horietako edozein aukeratik joan daitezke Zuzenbidea ikastera.

25. Zuzenbide ikasketak *full-time program* batean egin daitezke hiru urtetan, edo *part-time program* batean. Bigarren aukeran, iluntzeetan ikasten da luza- roagoan. Ikaslee gutxi jarraitzen dute bigarren aukera.

26. Egunduko batean (goizez edo arratsaldean) egiten den azterketa honek ikasleek Zuzenbidea ikasteko beharrezkoak diren gaitasunak ote dituzten ikus- tea du helburu. Besteak beste testuen bidez, ikasleak ulertzeko eta arrazoitzeko duen gaitasuna neurtzen da.

27. Unibertsitate desberdinetan eman daitezkeen aldagaiak ahaztu gabe, Harvardeko Unibertsitatean ondorengoak ikasten dira: *civil procedure, contracts, criminal law, property, torts*, eta *First Year Lawyering (FYL)*.

Baina, zalantzarik barik, amerikar Zuzenbide ikasle gazte batek jasotzen duen irakaskuntzaren eta guk jasotzen dugunaren –eta gure fakultateetan ematen denaren– arteko desberdintasun nagusia, irakaskuntza metodoa da. Gure geletan hain errotuta dagoen eta ikasleei jasangaitza eta aspergarria egiten zaien metodo magistral horren aurrean, AEBetan *case method* delakoa erabiltzen da ikasleei Zuzenbidea irakasteko. Geldi gaitezen hemen apur bat, zerbait ikasteko abagunea izan daiteke eta.

Case method edo, euskaraz, kasu metodoa, Harvard Unibertsitateko Christopher Columbus Langdell irakasleak²⁸ asmatu zuen *Casebook on contracts*²⁹ bere lanean. Lan honek, Ingalaterrako eta AEBetako *Appellate courts* desberdinen erabakiak (*judicial opinions*) biltzen zituen, kasu erreala eskolan jarraitu beharreko ordena baten arabera sailkatuz.

Oinarrizko euskarri bezala *casebook* horiek dituen metodo hau, oraindik aldaketa gutxi batzurekin indarrean dagoena, metodo sokratikoan oinarritzen da, eta, ohiko eskola magistralak (*traditional lecture method*) alde batera utzita, lege-ria positiboa berau aplikatzen duten epaileek ebatzitako kasuen bidez azaltzean datza. Ikasleek, etxean, aurretiaz, eskoletara joan orduko, epaile erabaki batzuk irakurri behar dituzte, gero eskolan irakurritakoa azaldu, berauetan aurkitutako edo identifikatutako arazo juridikoak adierazi, auzian jokuan dauden interesak zeintzuk diren azpimarratu, eta argi ikusten ez dituzten puntuak zeintzuk diren adierazi behar dutelarik. Irakasleek, berriz, ikasleei iruzkinak egingo dizkiete ikasitako arazo juridiko eta beste batzuen arteko harremanak zeintzuk diren galdetuz, aztertutako kasuei aldaketa batzuk egiten dizkiete aurreikusitako irtenbideetan ere aldaketak ikustarazteko... Guztia, betiere, ikasleak pentsatzen jartzeko.

Argi dago metodo honek ikasle guztien parte-hartze aktiboa galdatzen duela, gaiak aurretiaz prestatzeaz gain eskolan galderak eginez eta beren iritzia azalduz. Nekea handia bada ere –eskola orduak asteen 12 eta 15 bitartean dira, eta, *case method* horri jarraituz, ikasleek beren

etxean kasuak prestatzen eskola ordu bakoitzeko bi edo hiru ordu ematea galdatzen da–, metodo honen bidez ikasleek errealitatean ematen diren kasuak aztertzeko, ebaluatzeko eta konparatzeko gaitasuna lortzen dute. Gainera, lege praktikak eskatzen dituen abileziaz (analisi, arrazonamendu, kritika³⁰ eta adierazpenerako trebetasunez) eta teknikaz janzten ditu ikasleak. Jurista bezala pentsatzen ikasten dute.

Esan bezala, egun metodo hau erabiltzen jarraitzen da, nahiz eta gela bakoitzeko ikasle kopurua handia izan³¹. Ondorioz, gure artean hain zabaldua dagoen eskola magistralen metodoa oso gutxi eta salbuespen moduan erabiltzen da.

Arrunta denez, metodo honek kritikak jaso ditu. Garrantzitsuenek, metodoaren oinarri diren *casebook*-en eduki ez-osoak salatzen dute. Amerikar autore batzuen ustez, Zuzenbide positibo guztia ezin daiteke kasu horietan bildu, Zuzenbide amerikarraren zatirik handiena kasu horietatik kanpo dagoelako³².

Amerikar juristen heziketarekin bukatzeko, bertako *law school* edo *law faculty*-etan sartuko gara. AEBetako lurralde osoan 170 Zuzenbide eskola inguru daude. Gehientsuenak unibertsitate baten parte dira; batzuk pribatuak, kokagune duten Estatuarekin inolako harremanik gabekoak, eta besteak publikoak, herri emariak finantziatutakoak³³. Gehienak nazionalak dira: nazio guztiko jendea hartzen dute beren geletan, eta ez dituzte beren ikasleak Estatu jakin bateko Zuzenbidean hezitzen, baizik eta Ameriketako Zuzenbide komuna (*common american law*) irakasten diete³⁴.

Amerikar Zuzenbideko fakultate edo eskolek *Association of American Law Schools* deritzon elkarte osatzen dute. Elkarte honek nazioko lege eskolen kalitatea ahalik eta maila altuenetan mantentzea du xede. Horrela, eskola berri batek, elkarte honetako kide bihurtzeko eta ABaren onarpena lortu ahal izateko, gutxienez arau batzuk bete behar ditu: ikasketen iraupena, ikasleak onartzeko baldintzak, irakasleak erreklutatzea, ikasketa plana, etabar.

28. Christopher Columbus Langdell (1826-1896) abokatu New Yorktarra 1870.ean egin zen Harvardeko irakasle, eta geroago unibertsitate horretako bertako dekanoa izan zen. Zuzenbide ikasketen iraupena urte betetik hirura luzatu zuen.

29. *Casebook* hauek eboluzionatu egin dira, eta lehen kasuak bakarrik izaten bazituzten ere, egun arauak, lege idazki-ereduak eta bestelako testuak ere jasotzen dituzte. Gainera, aipatutako lehenengo *casebook* hori kontratuei buruzkoa izan bazen ere, geroago gai guztien inguruan sortu dira. Mota honetako liburu bat nolakoa den ikusteko, hona hemen gure liburutegietan erraz asko aurki daitekeen liburu baten izenburua: HALL, K. L., WIECEK, W. M. *American legal history: cases and materials*, 2. argitalpena, New York-Oxford: Oxford University Press, 1996. Liburu honen bitartez, eta testuetan oinarrituz, AEBetako Zuzenbidearen historia azaltzen da.

30. Ez dituzte auzitegien erabakiak besterik barik derrigorrezko bezala hartu behar; beste erabaki batzuekin konparatuz kritika ditzakete.

31. 150 edo 200 ikasleko geletan ere erabiltzen da!

32. Denegatik, ikus FARNSWORTH, E. Allan. *An introduction to the legal system of the United States*, 3. argitalpena, New York: Parker school of foreign and comparative law, Columbia University, Oceano Publications, 1996; 19. or.

33. Adibidez, pribatuak dira Chicago, Columbia, Cornell, Duke, Harvard, Stanfor, Yale, New York. Publikoen artean, berriz, sonatuenak California, Michigan, Berkeley, Minnesota, Washington, Virginia... dira.

34. ZWEIGERT, K.; KÖTZ, H. *An introduction to comparative law*, 2. argitalpena, Oxford: Clarendon Paperbacks, 1993; 259. or.

3.2. Bar-ean sartzea eta honen garrantzia ogibidearen zuzendaritzan

Jada behin baino gehiagotan aipatu dugu *bar* hitza. Jatorrian, *courtroom* edo auzigeleetan ikusleak epaile, abokatu, alderdi eta prozesuan parte hartzen zuten gainerakoetatik banatzeko erabiltzen zen gelari deitzen zitzaien. Egun, *bar*-a abokatuen elkargoa da. Oso garrantzitsua da azpimarratzea berez abokatuen elkargoa bada ere, AEBetan, Espainian gertatzen ez den bezala, Zuzenbidea ikasi duten pertsona gehienak, nahiz eta abokatu lanetan ez aritu (epaileak, funtzionarioak, enpresa gizonak, Zuzenbide irakasleak...), abokatuen elkargoko kide direla.

Bar-az hitz egitean, eta ondorengo azalpenetan ez galtzeko, gauza pare bat izan behar dugu kontuan: bere kopuru aniztasuna eta dituen maila ezberdinak. AEBetan ez dago *bar* bakar bat; Estatu bakoitzak bere *bar* estatala dauka, eta, gainera, beharagoko mailetan ere *bar*-ak daude (probintzia eta udal batzuetan [*local associations*], espezializazioaren arabera sortutako elkargok...), Nazio mailan jada aipatu dugun *American Bar Association* (ABA), Estatu desberdinetako *bar*-en elkarte, dago³⁵.

Bar hauek erakunde bezala eratu eta beraien lana aurrera eramateko, tokian tokiko botere legegileak onartutako xedapenek edo *Supreme Court*-ak emandako erabakiek baimentzen edo legitimatzen dituzte.

Bar association-ak kolonien garaitik existitzen dira, eta XIX. mendeko lehenengo urteetan desagertzeko zorian egon baziren ere, 1870. urtean berrindartu egin ziren³⁶. Urte horretan, New Yorkeko abokatu gutxi batzuek ("*the decent part of the profession*") bertako *Bar*-a sortu zuten *city* horretako Gobernuaren ustelkeriari aurre egiteko. Elkargo honetan izena ematea borondatezkoa zen legelarientzat, baina bertan sartzeko betekizunak oso gogorrak izanik, kide gutxi zituen. Hala ere, bere eredu gainerako Estatuetan kopiatu zen, eta XX. mendeko bigarren hamarkadan Estatu gehienek beren legelarien elkargoa zuten.

Zeintzuk dira elkargo hauen helburuak? Zuzenbidea uniformatzea eta bateratzea; justiziarren administrazioa hobetzea, batez ere auzitegien antolaketan eta epaileen aukeraketan parte hartuz; lege heziketa orokorra –Zuzenbide karrera, alegia– finkatzea eta kudeatzea, eta kideentzako heziketa iraunkorra antolatzea; ogibidean zuzentasuna mantentzea zantarrak diren abokatuei diziplina neurriak jarritz, eta beren kideen egoera

ekonomiko ona ziurtatzea. Azken helburu hau lortzeko, lanbidearen praktikara sartzeko betekizun gogorrak jartzen dituzte, merkatuan aritzen diren abokatu kopurua kontrolatzeko. Gainera, bezeroei mailarik oneneko zerbitzua ematearen aitzakipean, eta batez ere abokatuen sarrerak ziurtatzeko, gutxiengo tasa edo *fee* batzuk ezartzen dituzte eta, lehia desleiala debekatzen dute.

Estatu mailako elkargoak, derrigorrezkoak (*integrated bar*) edo borondatezko parte-hartzean oinarritzen direnak (*non-integrated bar*) izan daitezke. Egun, Estatu askok (adibidez, California, Florida, Texas...) derrigorrezko elkargoa dute. Horietan, abokatu bezala aritzeko eta epaileen aurrera agertu ahal izateko, beharrezkoa da elkargoko kide izatea eta honen partaide izatetik eratorritako beharrak (kuotak ordaintzea, heziketa iraunkorra, diziplina...) betetzea. Derrigorrezko kide izateko, batez ere abokatuen diziplina zorrotza mantentzea bilatzen da. Elkargok har ditzaketan diziplina neurrien artean, zentsura, esekitzea eta elkargotik botatzea (*disbarment*) aipa genitzake. *Non-integrated* elkargoa duten Estatuetan, berriz (adibidez, New York, Illinois, Massachussets...), kide izateko boluntarioa izanda, ez da derrigorrezkoa abokatu bezala jarduteko, eta *bar*-ek ez dute diziplina arloko eskumenik.

Gainerako elkargoak (hirietakoak, probintzietakoak, espezializazioen arabera sortutakoak eta nazionala bera [ABA]), guztiz boluntarioak dira.

Elkargo hauen guztien ezaugarri nagusia beren independentzia da: beraien kide diren abokatuek, beren jardueran egiten dutenagatik, soilik *bar*-aren aurrean eta tokian tokiko *Supreme Court*-aren aurrean erantzun beharko dute.

Jarraian, abokatutzan aritu nahi duten juristek Estatu mailako abokatuen elkargora sartzeko jarraitu beharreko bidea aztertuko dugu. Zentzu honetan, jada aipatu dugun datu bat ekarri behar dugu gogora: AEBetan, eta federalismoaren ondorioz, epailetza bezala, abokatutzaren jardueran Estatu Federatu bakoitzaren eremura mugatzen da. Kentuckyko legelari batek abokatu lanetan jardun ahal izateko, Estatu horretako legediaren arabera Zuzenbide ikasketak burutu eta bertako Estatu mailako abokatuen elkargoan eman beharko du izena, eta bere lana soilik Estatu horretako esparruan bete ahal izango du, bai Estatu auzitegien aurrean, bai Estatu horretan dauden auzitegi federalen aurrean.

Estatu gehienek, abokatuen elkargora sartu ahal izateko, hiru-lau urtetako unibertsitateko gradua (*college degree*), *law degree* edo

35. *Bar* desberdinen funtzionamenduan sakontzeko, ikus KELLY, M. *Lives of lawyers: journeys in the organizations of practice*, Ann Arbor: University of Michigan Press, 1994.

36. Urte honetan onartu ziren lehen aldiz emakumeak *bar*-etan.

Zuzenbideko graduondokoa³⁷ eta azterketa berezi bat gainditzea (*bar examination*) galdatzen dute.

Bar examination honek Estatu bakoitzaren barrutian abokatutzan arituko direnen prestakuntza egokia eta jarrera zuzen eta zintzoa bermatu nahi ditu. Azterketa hau, kasu bakoitzean elkar goa kokatuta dagoen Estatuko Zuzenbidean zentratzen da, eta AEBetako unibertsitate gehienak nazionalak direnez –amerikar Zuzenbide komunean hezitzen dituztenez ikasleak–, elkargoan sartu nahi duten lizentziatu berri asko azterketa hori prestatzeko eskola berezietara joaten dira (*bar review course*)³⁸. Eskola hauek tokian tokiko Estatuko abokatuek ematen dituzte, eta oso denbora gutxian informazio asko eman behar dute, ez dute *case method* erabiltzen, betiko metodo magistrala (*lecture*) baizik.

Hala ere, Estatu gehienek –46k, hain zuzen ere– *Multistate Bar Examination* deritzona erabiltzen dute. Azterketa honek hiru zati ditu. Lehenengo egun batean, elkargorako hautagaiek 200 galderadun test bat erantzun behar dute. Besteak beste, kontratuez, erantzukizunaz, jabe goaz, prozedura zibilaz, Zuzenbide penalaz eta prozedura penalaz galdetzen zaie³⁹. Bigarren zatian, hurrengo egunean, Estatu bakoitzeko Zuzenbidearen inguruan entsegu bat idatzi behar dute. Azkenik, hautagaiek elkarrizketa (*review*) bat izaten dute *bar*-eko kideekin, beren izaera eta alderdi etikoa neurtzeko. Normalean, azterketa hau egiten duten askok eta askok gainditzeko lehen aldia, eta urtero 5.000 pertsona inguru sartzen dira Estatu desberdinetako *bar*-etan.

Puntu honetan, komeni da berriz gogoratzeari AEBetako egitura federalaren ondorioz abokatu bakoitza bakarrik bere Estatuan, izena emanda dagoen elkargoko Estatuan, ari daitekeela abokatu lanetan. Federazioko beste Estatu batean jarduteko, Estatu horretako *bar*-eko kide bihurtu beharko du, eta horretarako bertako *bar examination* gainditzea galdatuko zaio. Azterketa hori gainditzeko, abokatuak Estatuko auzitegi eta auzitegi federal guztien aurrean agertu ahal izango du⁴⁰. Hala ere, praktikan, Estatu desberdinetako elkargoez batetik bestera beren kideen sarrera edo iraganbidea errazteko hitzarmen bereziak sinatzen dituzte, eta, normalean, batetik besterako lekualdatze hori azterketarik gabe edo azterketa berezi eta errezagoez (*motion admission*) ematen da. Gainera, ohiki Estatu bateko epaileen

aurrean aritzen den abokatu batek kasualitatez eta kasu jakin batean Federazioko beste Estatu bateko epaile baten aurrean agertu behar badu, elkargoez baimen bereziak lutzatzen dizkiote.

Atzeritarrek ere, amerikarrak ez direnek, egin dezakete *bar* horretara sartzeko azterketa, baina beraientzat betekizun bereziak aurreikusten dira.

Puntu honekin bukatzeko, *American Bar Association* (ABA) nazio mailako elkargoari so egin behar diogu. AEBetako Estatu desberdinetako maila guztietako elkargoez biltzen dituen erakunde pribatua hau 1878. urtean sortu zen, eta egun 370.000 kide inguru ditu, gutxi gorabehera amerikar abokatu erdia⁴¹. Bere buru edo presidentea, urtero ospatzen den *annual meeting*-ean aukeratzen dute bere kideak. Erabakiak hartzen dituen organoa, berriz, *house of delegates* da. Azken hau, Estatu guztietako *bar associations*-eko eta *local associations* handienetako ordezkariak osatzen dute. Bestela, eta egunero lan egiteko, ABA ataletan antolatzen da, eta atal bakoitza gai juridiko batez arduratzen da (Zuzenbide administratiboko atala, Lan zuzenbideko atala...). Hauetariko bakoitza, bere gaiari buruzko informazioa bildu eta kideei bidaltzeaz, ikastaro ezberdinak antolatzeaz, lege proposamenak egiteaz eta abarrez arduratzen da. Horretaz gain, oso garrantzitsua da elkargo honek epaile federalen aukeraketan duen papera. Nahiz eta erakunde pribatu bat izan, eta zioz inolako legimitate publikorik gabea, ikusiko dugunez epaileak erreklutatzeo prozesuan zeresan ugari izaten du.

Horretaz gain, ABAk abokatu amerikarrek jarraitu beharreko portaera etikoen bildumak (*Model Ethics Documents*) argitaratu ditu⁴². Nahiz eta Estatu bakoitzak berauek onartzeko, aldatzeko edo kasurik ere ez egiteko askatasuna izan, praktikan Estatu orok onartu ditu, aldaketa gehiagorekin edo gutxiagorekin, ABAk emandako bilduma hauek: *The Model Code of professional responsibility* (CPF) (1970) eta *The Model rules of professional conduct* (RPC) (1983). Kode hauek abokatuaren isilpekotasun edo konfidentzialitateaz, interesen gatazkak ekiditeko betebeharrak, abokatuak bezeroa informatua izateko betebeharrak, bezeroarekiko zintzotasunez jokatzeko beharrak eta abarrez aritzen dira.

Nahiz eta azken urteetan ABAk betidanik izan duen kontserbadore eta elitista fama galdu

37. Zazpi Estatuk (Alaska, California, Maine, New York, Vermont, Virginia eta Washington-ek), Zuzenbidean urte batzuez aritu izana Zuzenbide ikasketekin parekatzen dute.

38. Gainera, posible da Minnesotan ikasi duen batek Californian bizi eta lan egin nahi izatea. Horretarako, Californiako *bar*-ean eman beharko du izena, arinago Estatu horretako Zuzenbidean aditu bihurtu beharko duelarik.

39. *Contracts, torts, property, civil procedure, criminal law* eta *procedure*. Test hau *National Testing Service*-k (NTS) prestatzen du.

40. Federazioko auzitegiaren aritzeko, ez da eskatzen azterketa berezi bat gainditzea. Betekizun berezi bezala, *Supreme Federal Court* edo Federazioko Auzitegi Nagusiaren aurrean agertzeko abokatuei dagokien Estatuko *bar*-ean izena emanda izateaz aparte, tasa batzuk ordaintzea galdatzen zaie.

41. ABAren web orrialdetik (<http://www.abanet.org/>) ateratako datua.

42. Gogoratu epaileek jarraitu beharreko portaera etikoen kodea ere eman duela: *The Model Code of judicial conduct*.

nahi izan, egun, oraindik, bere buruak eta kide gehienak eliteko firmetan lan egiten duten abokatuak dira. Banaka aritzen diren abokatuek (*solo lawyer*) ordezkaritza eskasa dute erakunde honetan.

3.3. Zuzenbidea ikasi dutenak zertan jarduten dira?

Esanda dagoenez, epaile amerikarrak, federalak eta Estatuetakook, Zuzenbidea ikasi duten gizon-emakumeen artetik aukeratzen dira, gehienbat abokatuaren artetik. Ondorengo lerroetan, abokatuaren lanean eta juristek betetzen dituzten beste lanpostu batzuetan murgilduko gara. Honekin, argi geratuko da AEBetako epaileen prestakuntza zelakoa den eta nondik eratorria den.

Abokatutzan aritzen diren gizon-emakumeak, *lawyer* edo *attorney at law* izenez ezagutzen dira. Lanbidearen praktikan aritzeko aipatutako betekizunak betetzen dituztenak (Zuzenbide karrera eta *bar*-eko kide bere kasuan), normalean gaztetatik hasten dira abokatutza lanetan. Are gehiago, AEBetan praktika arrunta da Zuzenbideko ikasleak, karrera bukatu baino arinago, lan mundura ateratzea. Espediente ona daukaten neska-mutil gazteak, bigarren mailako udan, *law firm* edo abokatuaren bulego handietan hasten dira lanean, udako lansaio osoko postuetan (*summer associate full-time*). Ikasleek lan merkatuaren eta ogibidearen lehen ezagutza bat bilatzen duten bitartean, bulego handiek beren ohiko lan taldearen oporraldiak dakartzan hutsuneak betetzen dituzte. Gainera, urtean zehar pila-tutako lan atzeratua aurrera ateratzeko laguntza egokia izaten dira. Esperientzia alde bientzako positiboa gertatuz gero, askotan, ikasketak bukatzean, ikasle moduan sartutakoak bertan geratzen dira lanean.

Abokatuak batez ere hirietan biltzen dira, auzitegietatik hurbil, eta AEBetan dauden abokatu guztien –900.000 abokaturekin, mundu osoko abokatuaren heren baten kokagunea da!⁴³– laurdena California eta New York Estatuetan batzen da.

Egun, abokatuaren lanak oso eremu zabala hartzen du: bezeroak aholkatzea (*counseling*), negoziaketak (*negotiating*), mota guztietako dokumentuak idaztea (*drafting*), epaileen aurrean

ordezkaritza (*litigating*)... Deigarria da epaileen aurreko jarduerak, abokatuek burutzen duten lanaren gutxiengoa dela. Zalantza barik, honetan AEBetan hain garatuta dagoen ADRk (*Alternative Dispute Resolution*), liskarrak auzibideetatik at konpontzeko zaletasunak, badu zeresanik.

Abokatu bezala diharduten gehienak, bi herenak gutxi gorabehera, bakarrik aritzen dira (*solo lawyers*); gainerakoek *law firm* edo bulego handietan jarduten dute. XIX. mendera arte abokatu gehienak generalistak baziren ere, egun espezialista asko daude, batez ere bulego handietan. Gera gaitezen memento batez bi figura hauek: sar gaitezen bakarrik lan egiten duen abokatuaren bulegora, eta ehunka abokatu hartzen dituen bulego handietako horietako batera.

Solo edo bakarrik aritzen diren abokatuek alde batera uzten dituzte beraien segurtasun finantzieroa eta lan prestigioa, autonomia pertsonal eta profesionalaren mesedetan. Beraiek eramanen dituzte firma handietako abokatuek eraman nahi izaten ez dituzten kasuak (dibortzioak, immigrazio kontuak...), irabazi gutxien ematen dituztenak alegia. Abokatu hauek generalistak dira, *fee* baxuak kobratzen dituzte –beren bezeroek ordain ditzaketena!–, eta, horregatik, bizi ahal izateko, kasu asko eraman behar izaten dituzte. Auzitegien aurrean gehien aritzen direnak badira ere, ospe txarrena dutenak dira, eta kode etikoen urraketa gehien egileak. Gainera, orokorrean ez dute lanbidearen buruzagitzan (ABA,...) parte-rik hartzen⁴⁴.

Irten gaitezen bulego txiki eta gehienetan nahiko ezain horietatik, luxu handienarekin dekoratuta dauden *firm* edo bulegoetara sartzeko. Usaina eta giroa zeharo desberdinak dira. Konpainia handi hauek eskaintzen duten zerbitzurik hoberena, bulego txikiak eskaini ezina, *large firm* hauen arteko espezialista desberdinen arteko koordinazioa da. Abantaila hau jendeari gogortzeaz, telebista eta irratietako iragarkiak arduratzen dira⁴⁵.

Bulego hauetan aritzen diren abokatuak nazioko izen oneko unibertsitateetatik erreklutatzen dira, *Wall Street Lawyer* deitzen zaie eta ogibide legalaren erpina osatzen dute.

Ally McBeal bezalako amerikar filmetan agertzen diren bulego hauetan lan egiten duten

43. Munduko abokatu gehien dituen nazioa da, 300 pertsonen abokatu bat dagoelarik. Beste marka askoren artean, honengatik ere, egun Bushek gidatzen duen Federazioa 1998. urteko *Guinness Book of World Records*-en agertu zen. Abokatu haueetatik guztietatik, emakumezkoak laurden bat dira.

44. Hauetan indar egiteko, ikus ABEL, R. *American lawyers*, New York: Oxford University Press, 1989.

45. Puntu honi dagokionez, bitxikeria bat: 1970. hamarkada arte, abokatuek galarazita zeukaten beren jardueraren publizitatea egitea. Arau hori urratu zuten abokatuak diziplinatuak izan ziren. Garai haietan amerikar *lawyer*-ek egin zezaketen gauza bakarra, telefono gidetan beren izena jartzea zen. Egoera zeharo aldatu zen 1977. urtean, Federazioko Auzitegi Goreneko *Bates v. State Bar of Arizona* kasuarekin. Kasu hori ebatzi zuen sententzian, *Supreme Court*-ak begi onez ikusi zuen abokatuek beren lanari buruz egindako publizitatea, Konstituzio Federalaren lehen emendakinean xedatzen den adierazpen askatasunaren (*free speech guarantee*) islan. Orduetik aurrera, telebistan, irratian, egunkarietan... ohikoak dira abokatuaren iragarkiak. Gaia kritikoki eta era zabalean jorratzen du GLENDON, M. A. *A nation under lawyers: how the crisis in the legal profession is transforming American society*, New York: Farrar, Straus and Giroux, 1994.

abokatuen artean, bi kategoria desberdintzen dira: *associates* eta *partners*. *Firm*-ean sartu berriak diren lizentziatu gazteak *associate* moduan aritzen dira *partner*-en menpe, eta beraien laguntzaile bezala lan eginez, baina ez dute bezeroekin harreman handirik izaten. Bost edo zortzi urte bitartean *associate* moduan lan egin ondoren, *associate* batzuk, langile finenak, *partner* bihurtzen dira. Gainerako *associate*-ek bulegoa uzten dute, beste lan hobe batzuk bilatzeko. *Partner*-ek, aldiz, lanpostu finkoa dute *firm*-ean, eta bere kudeaketan parte hartzen dute. Urteko beren soldata jasotzeaz gain, bulegoaren mozkinetan ere parte hartzen dute. Denborarekin, urteen joan-etorriaz, kudeaketari denbora gehiago eskaintzen diote, eta alde batera uzten dute lan juridikoa.

Wall Street lawyer hauek dira diru gehien irabazten dutenak, osperik handiena dutenak, eta ogibidearen buru direnak (ABAn parte hartzen dutenak...).

Soldata kontuan sartuta, oro har amerikar abokatuek lansari onak dauzkate, baina normalean sendagile batek baino gutxiago irabazten dute. Hala ere, diru kontu hauek zehazteko, garrantzitsua da abokatuak non jarduten duen azpimarratzea: *city* handietako abokatuek herri txikietakoei baino gehiago irabazten dute. Gainera, *law firm*-etan aritzen direnek, bakarrik dihardutenek baino gehiago irabazten dute. *Solo*-ek, orduko, gehienez 50-60 dolar kobratzen badituzte, *Wall Street Lawyer* bat orduan 500 edo 600 irabaztera hel daiteke. Betiere, abokatuaren *fee* edo tarifa bere eta bezeroaren arteko gauza da, sarri askotan esan bezalaxe abokatu elkargoek *fee* minimo batzuk ezartzen badituzte ere. Edozein kasutan, bezeroren bati lan batengatik ordaindu beharreko *fee*-a oso garestia iruditzen bazaio, auzitegietara jo dezake, bere ustetan eman den gehiegikeria salatuz. *Court*-eko epaileak, abokatuen lansari edo *fee*-a egokia den edo ez erabakitzeko, abokatuaren esperientzia, kasuaren zailtasuna, antzeko kasuetarako lur esparru horretan ematen diren *fee*-ak, abokatuaren lanaren emaitza (kasua irabazi duen edo ez), kasuari eskaini dizkion lana eta denbora, eta *contingent fee*⁴⁶ den edo ez, hartuko ditu kontuan.

Jada dakigunez, auzitegiak dira –normalean, tokian tokiko *Supreme Court*-a– bai abokatu elkargoak, bai elkargo hauetako kide diren abokatuak gobernatzeko aginpidea dutenak. Honen ondorioz, abokatuen diziplinaz auzitegiak arduratzen dira, askotan *bar*-aren laguntzaz. Praktikan, abokatu batek zerbaite txarto egitean (*wrongdoing*),

epaile edo bezero batek salatu edo kexa bat aurkezten du *bar*-ean edo epaitegietan. Normalean, kexa txikiak *bar*-ak aztertuko ditu, horrela erabakiz gero abokatuari munta txikiko zehapenak ezarri edo errieta pribatu edo publikoak eginez. Diziplina hutsegite larriagoak auzitegi batek aztertuko ditu, eta, beharrezko ikerketak egin ondoren, *bar*-etik behin betirako (*disbarment*) edo aldi baterako kanporatzea agin dezake. Edozein kasutan, abokatuek beren burua defenditzeko eta entzunak izateko eskubidea daukate. Prozesu hauek, normalean, eta abokatuen izen ona eta errugabetasun presuntzioa gordetzeko, azken erabakira arte sekretuak izaten dira⁴⁷. Abokatuaren jarrera edo portaera arduragabea izan bada, gainera, bezeroek kontratuaren ez betetzei eratorritako erantzukizunean oinarritutako *malpractice* akzio bat daukate. Honen ondorioz, eta epaileen aginduz, nahiz eta bezeroek kalte larriak sufritu ez, askotan abokatuek beren *fee*-ak itzuli beharko dizkiete.

Abokatu lanetan ez diharduten juristak, batez ere enpresetan, funtzionario moduan edo irakasle lanetan aritzen dira. Hauen guztien artean ere –kopuru eskasagoan bada ere–, erreklutatzen dira epaileak.

Enpresetan aritzen diren juristek *house counsel* deritzen lana burutzen dute. Mota orotako industrietan, aseguru konpainietan, banketxeetan eta abarretan aritzen dira, eta negozioaren kudeaketa orokorraz arduratzeaz gain, enpresetako buruei gai juridikoetan aholkuak ematen dizkiete. Sarri askotan, enpresok epaileen aurrean ordezkatu eta defenditzen dituzte.

Bestalde, nazio osoko juristen %10 gutxi gorabehera ari da Gobernu federal edo estataltentzat funtzionario moduan lanean. Askok harrizten gaitu lurralde hartan Gobernuarentzat lan egitea gure inguruan bezain preziatua ez dagoela ikusteko. AEBetan, lanpostu hauek, normalean, lizentziatu berriek betetzen dituzte, baina urte batzuetako praktikaren ondoren beste lanpostu batzuk, sarri askotan abokatuarekin erlazioak, bilatzen dituzte.

Gutxieneko batzuk, irakasle lanetan aritzen dira. Hauei, hasiera batean, eta epaileei bezala, ez zaie ikasketa berezirik eskatzen. Unibertitate sonatuenei beren irakasleak beste lanbide juridiko batzuetatik erreklutatzen dituzte (abokatuak, funtzionarioak, enpresariak, epaileak...), baina irakasle bezala hastean, gainerako lan guztiak alde batera uztea eta irakaskuntzan eta ikerketan buru-belarri murgiltzea galdatzen diete.

46. AEBetako ezaugarri bat da “*contingent-fee*” delakoa: abokatuak, kasua irabaztera baldintzatzen du bere tarifa. Kasua galduz gero, gutxi edo ezer ez du kobratuko. Irabaziz gero, bezeroak lortutako mozkinen (“*recovery*”) zati bat letradaurentzat izango da. Mota honetako *fee*-a, lesio pertsonalen kasuan (“*personal injury actions*”) erabiltzen da batez ere. Ohitura honen kontra esaten da abokatuek, dirua irabazi nahian, legearen aurka doazen gehiegikeriak egin ditzaketela (froga faltsuak...). Bere alde, aldiz, baliabide gutxi dauzkaten pertsonen abokatuak izateko aukera emateaz gain, abokatuak lana benetan gogor egitera bultzatzen dituela esaten da.

47. Salbuespen bezala, Ohion prozesu guztia publikoa da.

4. Epaille Federalen aukeraketa

Federazio mailako auzitegietan zerbitzatzen duten epaileak nola aukeratzen diren aztertzen hasi orduko, artikuluko honen lehen partean landu genuen puntu bat ekarri behar dugu gogora; Federazio mailako auzitegien antolaketa hain zuzen ere. Bere mementoan esan genuenez, Konstituzio Federaletako 3. artikulua dio amerikar epai botere federala Auzitegi Gorenak (*Supreme Court*) eta Kongresuak (organo legegile federalak) agindu eta ezarritako (*“ordain and establish”*) beheragoko auzitegiek osatzen dutela. Artikulu honi jarraituz, Kongresuak, 1789. urteko *Judiciary Act* Legearen bidez, behe mailako auzitegi federalak, *District Courts* edo epaitze organoak eta *Courts of Appeal* edo erdi mailako apelazio organoak sortu zituen.

Hiru hauei (*Districts Courts, Courts of Appeals* eta *Supreme Court*), *Constitutional federal courts* deitzen zaie, Konstituzio federalaren 3. artikuluko bidea jarraituz sortuak direlako. Hiru organo hauetan zerbitzatzen duten epaileek, 3. artikuluko horrek aintzatesten dienez, biziarteko lanpostua eta karguan dauden bitartean beraien soldata gutxitzeko debekuaren babesa dute⁴⁸.

Aipatutako epai organo federalez gain, beste mota bateko organoak ere badira: *Federal legislative courts*-ak edo Konstituzio federalaren 1. artikuluan oinarrituta Kongresuak sor ditzakeen epai organoak; hala nola, *The United States Tax Court, The United States Court of International Trade, The Court of Veterans Appeals, The Court of Appeals for The Armed Forces* eta *The United States Court of Federal Claims*. Hauetan zerbitzatzen duten epaileei ez zaizkie aipatutako bi pribilegioak (biziarteko lanpostua eta soldata gutxitzeko debekua) aintzatesten.

Hala ere, bi motatako auzitegietako epaileak, bai *constitutional courts*, bai *legislative courts*

ekoak, era berean aukeratzen dira: Federazioko Presidenteak⁴⁹ izendatzen ditu (*appointment*) Senatuaren⁵⁰ onespenez edo berrespenarekin. Epaile federaletan ez dute epaile federalen aukeraketa eta izendapenean parte hartzen⁵¹.

Beraz, bi mota hauetako auzitegietan zerbitzatzen duten epaileen arteko desberdintasun nagusia, beraien independentziaren berme mailan datza. Lehenengoek, aipatutako bi pribilegioen aintzatespenari esker (biziarteko izendapena [*lifetime appointment*]⁵² eta soldata gutxitzeko aukeraren debekua), beraien lanean askatasun handiagoa dute. Bigarrenak, aldiz, epe jakin baterako izendatzen dira, 15 urterako hain zuzen ere, eta posible da urte horietan beren soldata ez igotzea edo jeistea.

Ahantz dezagun, mementoz, aipatutako desberdintasun nagusia, kontuan izateko modukoa bada ere, eta zentra gaitzen epaile federalen aukeraketan. Horretarako, lehen galdera batetik abiatu behar dugu: zergatik geratzen dira federazio mailako auzitegietan epaile plazak hutsik? Jada zerbitzatzen dauden artean heriotzak, dimisioak, erretiroak eta abar ematen direlako. Gainera, noizbehinka Kongresuak auzitegi federaletan lan zama gutxitzeko eta *Judicial Conference of United States*⁵³-en gomendioei jarraituz epaile lanpostu berriak sortzen ditu. Kongresuak, logikoki, epaile lanpostu gehiago sortzen ditu presidentea Kongresuan gehiengo duen alderdikoa denean.

Hala ere, eta hutsik dauden plazak betetzeko orduan, beste bi faktore politiko izan behar ditugu kontuan. Batetik, presidentearen agenda. Presidenteak bere beharrezkoen arabera jokatu du: memento jakin batean epaileak izendatzea komeni zaion edo ez, bestelako lanetan dabilen, iritzi publikoa bere alde dagoen edo ez... erabakigarriak izango dira. Bestetik, Etxe Zuriaren (*White*

48. Konstituzio federalaren 3. artikuluko lehenengo *section* edo atalak honela dio: "...The judges, both of the supreme and inferior courts, shall hold their offices during good behaviour, and shall, at stated times, receive for their services, as compensation, which shall not be diminished during the continuance in office".
49. Federazioren *botere exekutiboa*, Konstituzio Federalaren 2. artikuluan arautua, berariazko hauteskunde bidez 4 urterako aukeratutako presidente eta presidenteordearen eskuetan dago, bere menpe *federal agencies and departments* egitura administratiboak daudelarik. Presidenteak, Estatu Federalaren burua eta beronen Gobernuaren arduraduna, lege bi agintaldi bakarrik bete ditzake. Bere lana aurrera eramateko, *cabinet* bat osatzen du, *secretaries*-ak aukeratuz. Azken hauek, espainiar Ministerioaren parekoak, ez dira Kongresuko (organo legegileko) kide.
50. Senatua, Federazioko botere legegilearen parte da. Botere hau, Konstituzio Federalaren 1. artikuluan arautua, *The two Houses of the Congress*-en (Kongresuko bi ganberen) eskuetan dago: *House of Representatives* edo *Lower house* (beheko ganbera) eta *Senate* edo *Upper house* (goiko ganbera).
51. Salbuespena bakarra da: *District Court*-etan epaile federaletan laguntzen aritzen diren *bankruptcy judges* (porrotak aztertzen dituztenak) eta *magistrate judge*-ak. Lehenak, beren lurraldeari dagozkion *Court of Appeal*-eko epaileek izendatzen dituzte, 14 urteko epe berriztagarri baterako. Bigarrenak, aldiz, *District Court*-etako epaileek beraiek izendatzen dituzte, 8 urte berriztagarritarako. Bi kasuetan, kargua berritu baino arinago, auzitegi izendatzaileak, kasuan kasuko *Court of Appeal* edo *District Court*-ak, ohar publiko bat zabaldu behar du, berriztapenera aurkeztzen den epaile horren portaera eta jokabideari buruz herriari alegazioak egiteko aukera emateko.
52. Konstituzio federalak dio beren postua (*office*) "portaera ona duten bitartean" mantenduko dutela. Honek biziartekoa dela esan nahi du. Geroago aztertuko dugu epaile federalak beren postutik kentzeko bide bakarra (*Impeachment* delakoa). Hala ere, *District Courts* eta *Courts of Appeal*-etako epaileek, 70 urterekin, *senior* estatusa hartzen dute. Adin horretatik aurrera, eta beraiek ekinean jarraitu nahi izanez gero, soldata berdina mantenduz lansai oerdia (*part-time*) egin dezakete lan soldata osoaren truk. Salbuespen bezala, *Supreme Court*-eko epaileek, nahiz eta 70 urtetara heldu, lansai osoan edo *full time* jarraitzen dute.
53. Artikulu honen lehenengo zatian esan genuenez, Kongresuak 1922. urtean sortua, auzitegi federalen administrazioarako lerro nagusiak ezartzen dituen organoa da. Urtero gutxienez birritan biltzen da, eta, besteak beste, Kongresuan aurkezteko auzitegi federalen aurrekontua egiten du, justizia federalari buruzko legeak proposatzen dizkio Kongresuari, justizia federalaren funtzionamendua ebaluatzen du, eta orokorrean aholkuak ematen dizkio Kongresuari. Berau, *The Chief Justice of the US*-az gain, *Federal Court of Appeal* bakoitzaren arduradun den *Chief Judge*-ak, *The US International Court of International Trade*ko *Chief Judge*-ak eta *judicial circuit* bakoitzeko *district judge* batek osatzen dute.

House) eta Senatuaren arteko harremanek ere zeresan handia daukate epaileen izendapenean. Azken finean, Senatuak presidenteak hautatutako pertsonak berretsi behar ditu; horregatik, bi erakundeen arteko harremana ona denean –batez ere alderdi politiko bera dagoenean bi erakundee-tan–, Senatuak errazago onartzen ditu presidente-ak proposatzen dituen epaileak⁵⁴. Aldiz, presidentea demokrata bada eta Senatuan gehiengo errepublikarrek badute, edo alderantziz, epaile plaza hutsak betetzeko arazo asko egon daitezke. Honetan berehala sartuko gara. Azter dezagun orain presidenteak nola aukeratzten dituen hautagaiak.

Konstituzio Federalak edo legeek ez dituzte xedatzen pertsona batek epaile federal bihurtzeko bete beharreko betekizunak. Teorian, boterean dagoen presidenteak Senatuaren aldeko boza lortuz gero, berak nahi duen edonor izenda dezake epaile. Praktikan, epaileei ezaugarri jakin batzuk galdatzen zaizkie, eta mementoan mementoko presidenteak batzuei beste baino garrantzi handiagoa ematen die:

1. Izendatuak, bere lanbidea edozein izanda ere, jurista behar du izan, eta nazioko ospe handiko *law school* batean lizentziatuak hobesten dira.

2. Izendatuak ez dauka aurretiaz epaile lanetan esperientziarik izan beharrik, nahiz eta presidente batzuek datu hori positiboki baloratu.

3. Izendatuak urte batzuetako (hamabost, hogeitatu) esperientzia behar du izan bere lanbidean.

4. Izendatuak gehiengo edo gutxieneko adin bat izan behar du.

5. Izendatuak ekonomia egoera ona edo behintzat normala, zorrik gabea, izan behar du.

6. Nahiz eta presidenteek askotan beteki-zun hau ez onartu, hautagaien sexua, arraza, erlijioa, etnia eta geografia⁵⁵ ere kontuan izaten dituzte⁵⁶.

7. Azkenik, zalantza barik garrantzitsuena, presidenteek hautagaien ideologia politikoa hartzen dute kontuan: beren pentsamendu politikoa-rekin eta politika orokorrekarekin bat datozen pertsonak izendatzen dituzte⁵⁷. Hau horrela da, inolako matizaziorik gabe, *Supreme Court*-eko epaileen kasuan. Federazio osoko epai organorik garrantzitsuena izanda, presidenteek badakite *Supreme Court justice* edo epaile izendatzen dituztenek, beren kargua bukatu ondoren, urte askotan jarraituko dutela postuan, eta zeresan handia izan dezaketela nazioko bizitzan⁵⁸.

Edozein kasutan, epaile federalak aukeratzeko orduan presidente bakoitzak irizpide batzuk ezartzen badiu ere, praktikan berehala ikusiko dugunez, *district judges* eta *appellate judges*-en aukeraketa beste batzuegan eskuordetzen duten arren (Justizia Departamentuko buruan, senadoreengan, *bar*-etan,...), *Supreme Court*-eko epaileen aukeraketan pertsonalki hartzen dute parte. Hau guztiz logikoa da; izan ere, azken hauek nazioko bizitzarako duten garrantzia alde batera utzita, gutxi baitira (9 baino ez!) eta inoiz, George Washington (1789-1797) presidenteak lehen aldiz *Supreme Court*-eko epaile guztiak izendatu zituenetik, ez baita auzitegi hau osorik aldatu⁵⁹.

Jarraian, aukeraketa prozesuaren fase desberdinak aztertuko ditugu. Fase hauek berdinak dira epai organo federal guztientzat; hala ere, normala denez, hautagai kopurua desberdina izan da auzitegiaren arabera. Desberdintasun nagusia, berehala frogatuko dugunez, organo bakoitzeko epaileen erreklutazioan benetan eraginkorrak diren faktoreetan datza: *District Court*-etako epaileak aukeratzekoan Estatu ezberdinetako senatariek eta Estatu horietako politika orokorrak

54. Honen adibiderik onena, Clintonen presidentzia da. Bere lehenengo bi urteetan (1993-1994), Demokratek Senatu kontrolatzen zutenean, Clintonek 118 *district judge*-n izendapena eraman zuen Senatura, eta honek 197 onartu zituen (hau da, %91). 21 *appellate judge*-n izendapena eraman zuen Senatura eta honek 18 onartu zituen (hau da, %86). Presidentziaren bigarren partean (1995-1996), errepublikarrek kontrolatzen zuten Senatura, eta Clintonek arazo asko izan zituen berak hautatutakoak izendatuak izateko: *District Court* epaileen %73 eta *Appellate Court*-en %61 bakarrik berretsi zituen.

55. Non bizi diren eta nongoak diren. Honen adibide egoki bat *Supreme Court*-a bera da: bertan lurralde desberdinak, eta batez ere AEBetako iparraldea eta hegoaldea, kopuru berean daude ordezkaturak. Hori horrela da George Washingtonek 1789.ean horrela aurreikusi zuenetik.

56. TARR, G.A. *Judicial Process and policymaking*, 2. argitalpena, Belmont: West Wasworth, 1999; 78. orrialdean dioenez, Jimmy Carter presidenteak (1977-1981) bere kanpainan afroamerikarrek eta emakumeak izendatzea promes egin zuen, eta horrela bete ere. Carterrek beste aurreko presidente guztiak batera baino afroamerikar eta emakume gehiago izendatu zituen. Tendentzia bera jarraitu zuen Bill Clinton (1993-2001).

Fenomeno hau argi eta garbi ikusten da *Supreme Court*-aren kasuan. Betidanik, amerikarrek oso garrantzitsutzat, beren demokraziaren adibidetzat, hartu dute beraien gizarteko talde batzuk auzitegi honetan espresuki ordezkaturak egotea. Horregatik, antzintatik, auzitegi horretako aulkiak (*seat*) talde jakin batzuentzat gordeta egon dira, katolikoentzat bat (Chief Justice Roger B. Taney bihurtu zen *Supreme Court*-eko lehenengo epaile katolikoa), judutarrentzat beste bat (auzitegi honetan eseri zen lehen judua Louis Brandeis izan zen, 1916. urtean Woodrow Wilson presidenteak [1913-1921] izendatuta), afroameriketarrentzat hurrengokoa (Lyndon Johnson Thurgood Marshall-ek izendatu zuen)... Ronald Reagan presidenteak (1981-1989) izendatu zuen lehenengo emakumea 1981.ean: Sandra Day O'Connor, eta horrela emakumeen eserlekua sortu zuen. Urte batzuk geroago, Bill Clinton presidenteak emakumeentzako bigarren eserlekua sortu zuen, 1993.ean Ruth Bader Ginsburg *Supreme Court*-eko epaile izendatu zuenean.

57. Zentzu honetan, amerikar esaera zahar batek dio epaile federal bat presidente bat ezagutzen duen abokatu bat dela. Ikus CALVI, J.V.; COLEMAN, S. *American law and legal systems*, 4. argitalpena, New Jersey: Prentice Hall, Upper Saddle River, 2000; 57. or.

58. Adibidez, Franklin D. Roosevelt presidenteak (1933-1945), 1939. urtean, William O. Douglas *Supreme Court*-eko epaile izendatu zuen. Douglas honek, bera izendatu zuen presidentea hil eta 30 urte gehiago (1975era arte) zerbitzatu zuen.

59. Normala guztiz, epaileek biziarteko izendapena baitute.

zeresan handia duten bitartean, *Appellate Court*, *Supreme Court* eta *Legislative Courts*-etako epaileak hautatzerakoan nazio polikak eta presidentearen iritziak garrantzi aparta daukate.

Demagun lehen fasea eman dela, presidentek auzitegi baterako hautagai bat aukeratu duela. Ondoren, FBIk (*Federal Bureau of Investigation*) hautagaiaren inguruabarrak ikertuko ditu. Duela urte batzuk, ikerketa hauek izendatutako epaileei bakarrik egiten zitzaizkien, baina, Nixon presidentearen garaitik (1969-1974), praktika hau hautagai sendo guztiei zabaldu zaie⁶⁰. Ikerketa honen helburua, hautagaia pertsona garbia dela, drogazalea, emakume zikin zalea, familia arazo larriarena... ez dela ziurtatzea eta presidentearen konfiantza osoaren jabe izan daitekeela baieztatzea da.

Hautagaiak FBIren txosten positiboa lortuz gero, ABAk (*American Bar Association*) hautagaiaren prestaketa juridikoaren balorazioa (*rating*) burutuko du. Azken hau ez da hautaketaren fase formal bat, eta, zioz, presidente bakoitzak nahi duen garrantzia ematen dio balorazio honi. Presidente errepublikarrek, orokorrean, ABAREN irizpideak jarraitu dituzte⁶¹.

Balorazio hori egiteko, ABAn batzorde berezi bat dago, *Committee on Federal Judiciary* izeneko. Batzorde hau *federal circuit* bakoitzeko ospe handiko abokatu ez osatua dago, eta ABako presidentek hiru urteko eperako izendatutako 15 kide ditu. Batzorde honek hautagaien kompetentzia profesionala aztertzen du; besteak beste, epaitzeko gaitasunari (*judicial temperament*), adinari, auzitegiaren duten esperientziari, aiurriari eta inteligentziari erreparatzen diote, eta beraien azken erabakian hautagaiak “*well-qualified*”, “*qualified*” edo “*not qualified*”⁶² bezala kalifikatzen dituzte.

Jarraian, hautagaiak Senatuko *Judiciary Committee*-ra aurkezten dira bertan “*hearing*” edo entzunaldi bat izateko. Puntu honetan, argi eta garbi esan behar da Senatuan, *district judge*-en berrespenek, hautagaiek auzitegi hauen kokapeneko Estatuko senatarien onespina badute, arazo gutxi ematen dutela. Izan ere, gainerako senatariei ez zaizkie izendapen horiek hainbeste axola, izendapena txarto eginez gero, hautagai desegokiak izendatzen badira, erabaki horren ondoriozko kalteak Estatu bateko *District Court* batera mugatuko baitira. *Courts of Appeal* eta *Supreme Court*-eko epaileak izendatzerakoan, aldiz, senatariek arreta handiagoa jartzen dute.

Senatuan audientzia horiek egiten diren bitartean, hautagai polemikoen (arinago epaile izanda erabaki oso kritikatuak eman dituztelako, beren iritzi erradikal edo eztabaidatuengatik aski ezagunak direlako...) berrespenaren kasuan, presio talde askok (talde feministak, ekologistak, abortoareen aldekoak edo kontrakoak, askatasun zibikoaren aldekoak, heriotza zigorraren aldekoak edo kontrakoak, eta abar) hautagai horien alde edo kontra testifikatu nahi izaten dute. Honek berriro uzten du agerian epaileen hautaketa fenomeno arras politikoa dela.

Audientzia horien ondoren, hautagaia bera, honek aurkeztu nahi dituen lekuko guztiak eta gainerako presio taldeak entzun eta gero, *Judiciary Committee*-ak hautagaiaren berrespena Senatuko osoko bilkurara eramatea (*approval*) edo ez (*rejection*) bozkatzen du. *Committee*-ak izendapena onartzen badu, Senatu osoaren onarpena kasik ziurra da. Senatuan berrespena lortzeko, gehiengo soilaren babesa lortu beharko da.

Azkenik, hautatua, bere karguari zin egin eta gero, epaile federala izango da bizitza guztirako (*life tenure*) *constitutional court*-en kasuan, edo 15 urterako *legislative court*-en kasuan. Hemen matizazio garrantzitsu bat egin beharrean gaude. Argi dagoenez epaileen hautaketa prozesua guztiz politikoa bada ere, epaile bat bere karguan sartu eta gero, presidentearikiko, honen ideologiarikiko eta programarikiko guztiz independentea da. Bere ebazpenetan hauen kontra egitea zilegi du, eta ezin da horregatik bere postutik kendu edo zigortu.

Puntu honetan, jada aipatu dugun kontu batera itzuli behar gara. Hautaketa prozesuaren politizazio nabarmenaren ildotik, *District Court* epaileen izendapenean senatariek zeresan handia dutela azpimarratu dugu. Hau horrela da George Washington presidentearen garaitik, eta idatzi gabeko ohitura gisa (*unwritten tradition*) senatariei aintzatetsi zaien *Senatorial courtesy* deitutako pribilegioaren eraginez. AEBetako senatariek, Estatu etako epaile federalen izendapena beraien pribilegio edo eskumena dela eta, aspalditik uste izan dute presidentek beraiekin adostu behar duela. Presidentek pribilegio honen kontra eginez gero, eta *District Court* bateko epaile bat auzitegi hori kokatutako Estatuko senatarien borondatearen kontra izendatuz gero, senatari horiek gainerako beste senatariei eskatuko diete izendapen horren kontra bozkatzeko. Honek, senatarien eskuetan beto eskubide (*veto power*) bat ipintzea suposatzen du. Fenomenoa intere-

60. WASBY, S.L. *The Supreme Court in the federal judicial system*, 4. argitalpena, Chicago: Nelson-Hall, 1993; 75. or.

61. Eisenhower (1953-1961), Nixon, Reagan, edo G.H.W. Bush (1989-1993) inoiz ez zuten ABAk “*not-qualified*” bezala kalifikatutako hautagairik izendatu. Kennedy (1961-1963), Johnson (1963-1969), eta Clintonek, alderantziz, epaile izendatu zituzten, nahiz eta ABAREN txostena kontrakoak izan.

62. Ondo prestatuak, prestatuak eta ez prestatuak, hurrenez hurren.

santea da oso, eta praktikan nola azaltzen den ikustea merezi du.

Jada dakigunez, AEBetako Federazioko Senatua, espainiar Senatua bezala, lurraldea ordezkatzeko ganbera bezala aurreikusten da, eta Estatu bakoitzak bi kide dauzka erakunde horretan. Honen harira, eta *senatorial courtesy* horren inguruan, posible da bi kide hauek presidentearen alderdi politiko berekoak izatea edo ez, edo bat horrela izatea eta bestea ez. Senatarietako bat edo biak presidentearen alderdi politiko berekoak badira, presidenteak, izendapena egin orduko, hautagai baten izena eskatuko die. Senatariak beren hautagaia pentsatuta badute, presidenteari zuzenean jakinaraziko diote, honek izendatzeko. Praktikan, senatariak epai postuak beren jatorriko Estatuan zor dituzten mesede politikoak ordaintzeko erabiltzen dituzte. Posible da senatariak hautagai bat baino gehiago izatea. Kasu honetan, eta inorekin txarto ez geratzeko, hautagai guztien izenak luzatzen dizkiote presidenteari, azken honek aukera dezan.

Gerta liteke bete beharreko auzitegia kokatzen den Estatu Senatuan ordezkatzeko duten bi senatariak ez izatea presidentearen alderdi politikokoak; kasu honetan, presidenteak, berauei kasurik egin barik, Estatu horretako bere alderdi politikoko jendeari (*House of Representatives* edo beheko ganberako kideei) galdetuko die, eta bi senatariak beto eskubidea erabili ahal izango dute.

Senatorial courtesy honekin bukatzeko, berriro gogorazi behar dugu *District Court*-eko epaileen izendapenean daukala benetako garrantzia. Eragin gutxiago du *Appellate Court*-eko epaileen aukeraketan; batetik, hauen lur eremua den *federal circuit* bakoitzak, *District Court*-ak ez bezala, Estatu bat baino gehiago biltzen dituelako, eta zioz presidentea *circuit* horretako edozein izendatzeko askea delako, eta, bestetik, *Appellate Court*-en erabakiak *District Court*-enak baino askoz garrantzitsuagoak direlako, Estatu gehiagotan eragina izateaz gain, *circuit* osoan *precedent* balioa baitute. Horregatik, presidentek federazioko apelazio epaileen aukeraketan arreta handiagoa jartzen dute, eta senatarien eragina nabarmenki jaisten da. Eragin hau, Auzitegi Goreneko epaileen izendapenetan, hutsala da.

Azkenik, eta epaile federalen aukeraketarekin bukatzeko, labur-labur, berauek beren kargutik

kentzeko bide bakarrari, *Impeachment*-ari, lerro batzuk eskaini behar dizkiogu⁶³.

Epaile federalen kargua oro har biziartekoa izanik, *Impeachment*-a da Konstituzio Federaleko 3. artikuluko epaileak beren kargutik kentzeko bide bakarra. Nazio mailan oihartzun handia duen gertakizuna da, Senatuan beste lege ekimen edo lanen aurrean lehenetsuna duena. Konstituzioak bere nondik norakoak deskribatzen ditu: *House of Representatives* edo AEBetako botere legegileko beheko ganberan botoen gehiengoz hasi ondoren, goiko ganberan edo Senatuan burutzen da epaiketa (*trial*). Senatuaren bi herenen gaitzespena lortuz gero, *Impeachment*-a positiboan izango da: epaile federala bere postutik baztertuta (*removal*) izanen da, eta betiko galaraziko zaio beste auzitegi federal batean zerbitzatzea. *Impeachment*-ak ez du beste ondorioz izango, egon daitezkeen gainerako erantzukizunak (pena, zibila) salbu. Epaile federalak baztertzeko bide honen kontra ez da inolako helegiterik aintzatesaten. Are gehiago, Konstituzio Federaleko 2. artikuluko 2. atalak presidenteari AEBen kontrako delituengatik indultuak eta barkamenak emateko eskubidea aintzatesaten dionean, kasu bat bakarrik salbuesten du: *Impeachment* kasua⁶⁴.

Zeintzuk dira epaile bat *Impeachment*-era meneratzeko arrazoiak? Zeintzuk dira delitu "*Impeach-garriak*" ("*impeachable offense*")? Gerald Ford presidentearen (1974-1977) hitzetan, *Impeachment*-arekin zigortu behar da *House of Representatives*-en gehiengoak historiako memento jakin batean *Impeach-garri* bezala ikusten duen delitua. Konstituzio Federaleko 2. artikuluko 4. atalean esaten duenez, "presidente, presidenteordea eta Estatu Batuetako *civil officer* guztiak –epaileak barne– beren kargutik kenduak izan ahal izango dira *Impeachment* bidez, traizio, eroskeria edo beste krimen edo delitu batengatik kondenatuak izan badira"⁶⁵.

5. Estatu Federatuetako epaileen aukeraketa

5.1. Kontzeptu orokorrak: aukeraketa sistema ezberdinak

Aski ezaguna denez, AEBak osatzen dituzten Estatu federatu bakoitzak bere auzitegi antolaketa propioa dauka, eta Federazio osoan ez

63. *Impeachment* hau argi eta bikainki azaltzen du Iñaki ESPARZA LEIBARrek, "Impeachment' edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan", In: *Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria*, 4. zenbakian. Ikus, baita, VOLCANSEK, M. *Judicial Impeachment: none called for justice*, Illinois: University of Illinois Press, 1993.

64. "The President (...) shall have power to grant reprieves and pardons for offenses against the United States, except in cases of Impeachment".

65. "The President, Vice President and all civil Officers of the United States, shall be removed from Office on Impeachment for, and conviction on, Treason, Bribery, or other high crimes and misdemeanors".

AEBetako estatistikan arakatuz gero, aukera hau ez dela askotan erabili dakusagu. *Federal judges*-en kontra 13 *Impeachment* prozesu eman dira: Senatuak 7 epaile kondenatu ditu, eta 4 absolbitu. Bik beren karguari uko egin zioten, Senatuak kasua ebatzi baino arinago.

daude bi antolaketa berdin⁶⁶. Hau horrela da auzitegi sistema bakoitzak orokorrean Estatuaren beharrian eta premiei erantzun nahi dielako. Berdina aplikatu behar dugu epaileen aukeraketa sistemari dagokionez: Estatu bakoitzak bere epaileak aukeratzeko bide propioak ditu, askotan beste Estatuetatik ezberdinak. Honi eta nazioaren egitura politikoari, Federalismoari alegia, erreparaturaz, erraz uler daiteke Estatuetaiko epaileen ezaugarri nagusia: epaileak estatalak dira, Estatu jakin baterako izendatzen dira, eta soilik horretan ari daitezke epaile lanetan.

Epaile hauek aukeratzeko, hiru sistema nagusi daude (*election*, *appointment* eta *merit selection*), baina, gero, Estatu bakoitzean, beren arteko nahasketak eta elementu aldaketak egiten dira, eta tokian tokiko Estatuan epaileak erreklutatze bideek mundu bat osatzen dute. Gainera, Estatu batzuek organo batzuetako epaileak aukeratzeko bide bat erabiltzen dute, eta beste batzuetarako beste bat⁶⁷. Gauza gehiago korapila daiteke; izan ere, Estatu askok behin-behinean ateratzen diren postuetarako (*initial election* edo *vacancy*) erreklutazio bide bat erabiltzen dute, eta beste desberdin bat behin betikoetarako (*final election* edo *vacancy*). *Bar*-aren eragina bera ere desberdina da Estatu batetik bestera.

Estatu gehienetan, Federazioan gertatzen denaren kontra, epaileak ez dira biziarterako hautatzen. Salbuespenak salbuespen⁶⁸, epaileak, kasik Estatu orotan, urte batzuetako eperako hautatzen dira, eta berau bukatzean karguan jarraitu nahi badute, berriro izendatuak izan beharko dira. Azken honi *retention* deritzo. *Retention* honen inguruan ere, Estatu bakoitzak bere berezitasunak ditu; izan ere, posible da organo jakin bateko epaileak aukeratzeko bide bat erabiltzea, eta *retention*-erako beste bat.

Erraz soma daitekeenez, gauzak asko konpika –eta, batez ere, luza!– daitezke Estatuz Estatu bakoitzaren epaileen erreklutazio bideak zehatz-mehatz aztertuz gero (Estatu bakoitzeko maila desberdinetako organo desberdinetako aukeraketa, *retention*-a, epeak...). Hori dela-eta, sistema ezberdinak azaltzera eta bakoitzaren abantaila eta desabantailak azpimarratzera mugatuko gara.

Edozein kasutan, eta gera bedi hasieratik argi, AEBetako epaile aukeraketa sistema guztie-

tan barne borroka bera atzeman daiteke: epaileen independentzia eta berauen erantzukizuna, Zuzenbidea eta polika hurrenez hurren bata bestearen aurrean agertzen dira. Zeri eman behar zaio lehenespena, epaileek lanean independentzia osoz jarduteari, ala egiten dituzten egintza eta ebazpenengatik herriaren aurrean erantzule izateari? Estatu batzuek nahiago dute beren epaileen independentzia bermatu, beren erantzukizun politikoaren kaltetan bada ere⁶⁹; beste batzuek, berriz, nahiago dute epaileak beren egintza eta jardueragatik erantzule zorrotz egitea, honekin independentzia galtzen badute ere⁷⁰. Azkenik, Estatu batzuek, gehienek, epaileen independentzia eta erantzukizuna maila berean edo behintzat elkarrekiko orekan babesten dituzte⁷¹.

5.2. *Election* edo aukeraketa

AEBetako Estatu askok hauteskundeetan aukeratzeko erabiltzen dituzte beren epaileak. Gure ingurunean ordezkaritza politikoa aukeratzeko hauteskundeak egiten diren bezala, eta kontinente zaharreko jurista batentzat arraro samarra gerta badaiteke ere, Ipar Ameriketako Estatu Batuetan, berdintasunaren eta demokraziaren izenean, toki batzuetan, eta auzitegi batzuek erabiltzen dituzte, epaileak hauteskunde bidez erreklutatzen dira. Are gehiago, aukeraketa bide hau beraien gobernatzaileen edo Kongresuko kideen hautaketa zuritzeko erabiltzen duten teoria berarekin zuritzen dute: epaileak, gizarte osoarengan eragina duten erabakiak ematen dituzten heinean, politikariak dira, eta, horregatik, gainerako politikariak bezala aukeratu behar dira, eta gainerako politikariek bezala erantzun behar dute herriaren aurrean.

Sistema hau ez da atzo goizekoa, eta, bere jatorria aurkitzeko, kontinente berriaren historian urte asko atzeratu behar gara. Amerikar lehen kolonien garaian ezezaguna zen. Independentziaren guda (1776) ondoren, Andrew Jackson presidentearen (1829-1837) garaian sortu zen, "*Jacksonian democracy*"-aren alderdi bat bezala. XIX. mendearen lehen erdialdian, epaileak hautatzeko oinarritzko bide bihurtu zen: Vermont 1777. urtean hasi zen behe mailako auzitegiak hauteskunde bidez erreklutatzen, Georgia 1812. urtean, Mississippi 1832an, New York 1846an⁷²... Hala ere, inoiz ez da epaileak aukeratzeko bide eksklusiboa izan, eta egun ere ez: nahiz eta Estatu batzuetan epaileen aukerake-

66. Orokorrean, eta matizazioak nahi izanez gero artikuluko lehen zatira joatea gomendatuz, Estatuetaiko auzitegi sistemak piramidalak dira, eta piramide horietan bi edo hiru maila desberdin daitezke: beheko mailan *trial* auzitegiak daude, erdian, bere kasuan, apelazio organoak, eta erpinean Auzitegi Gorena.

67. Normalean, *trial court* edo epaitegi organoetarako erreklutazio bide bat erabiltzen dute, eta beste bat apelazio auzitegietaiko epaileentzat.

68. Bi Estatutan bakarrik, Massachusetts eta New Hampshiren hain zuzen ere, izendatzen dira beren epaileak bizi osorako. 70 urterekin jubilatutako behar dira.

69. Kasu baterako arinagoko oharrean aipaturiko biak, Massachusetts eta New Hampshire.

70. Alabama, Arkansas, Kansas, Louisiana...

71. Alaska, Colorado, Connecticut, Hawaii, Utah...

72. Hautaketa sistema honen jatorriari buruz, ikus VOLCANSEK, L. *Judicial selection. The cross-evolution of french and american practices*, Connecticut: Greenwood Press, 1988.

ta metodo honen bidez egitea aurreikusten den, erreklutazio bide hau jarraitzen duten Estatu gehienetan, epaileen gehiengoa praktikan *governor*-ak edo beste agintari exekutibo batek izendatzen ditu, beraiek betetzen baitituzte hauteskundearen arteko denboran ematen diren hutsuneak. Betiere, posible da hasieran agintari exekutiboaren eskutik epailetzara heldu den norbait (*initial election*) hauteskundeak ospatzen direnean aukeratua suertatzea (*final election*).

Epaileak hauteskunde bidez aukeratzeko sistema honetan, eta hauteskunde horiei so eginenez, desberdintasun nagusi bat nabarmendu behar dugu: Estatu batzuetan *partisan election* metodoa jarraitzen da epaileak erreklutatzeke, eta besteetan *non-partisan election* delakoa.

Partisan election sisteman, epaileak, esan bezalaxe, herriak aukeratzen ditu hauteskunde demokratikoen bidez, baina epaile izan nahi duten hautagaiak alderdi politiko baten babesean aurkeztu behar dute ("*party ticket*"). Hautagaiak, hauteskundetara aurkeztu ahal izateko, derrigorrean afiliazio politiko bat izan behar dute, errepublikarra edo demokrata. Alderdi politiko ezberdinen arteko borroka hauteskunde kanpaina eszenifikatzen da, eta boto gehien lortzen dituen alderdia eta bere hautagaia egiten dira epaile postuaren jabe.

Normalean, *partisan judicial elections* hauek urte paretan hauteskunde orokorrekin batera ematen dira.

Sistema hau erabiltzen dute beren auzitegi gehienak aukeratzeko, besteak beste, ondorengo Estatuak: Alabama, Arkansas, Indiana, Mississippi, Kansas, Louisiana, New Mexico, New York, North Carolina, Pennsylvania, Texas, Tennessee, West Virginia...

Non-partisan election-en kasuan, epailetzarako hauteskundeetan hautagaiak pertsona independente moduan agertzen dira, alderdi politikoen babesetik at. Beraiek egiten dute kanpaina beren buruaren defentsan, inolako alderdi politikoren laguntzarik gabe. Herriak, teorian —eta teorien esaten dugu, gero praktikan beste gauza bat delako—, boza emateko orduan ez dio hautagaiaren ideologia politikoari so egiten, baizik eta hautagaiaren beraren gaitasun eta dohaiei.

Erreklutazio bide hau jarraitzen dute, besteak beste, ondorengo Estatuak: Georgia, Idaho, Kentucky, Michigan, Minnesota, North Dakota, Ohio, Oregon, Washington, Wisconsin⁷³, Florida, Montana eta Nevadak⁷⁴.

Enbor beretik eratorritako bi sistema hauen abantailak eta desabantailak zenbatzen hasi orduko, bi ezaugarri komun aipatu behar ditugu. Batetik, bi sistemetan, hautagaiak herriaren aukeraketa orokorrera aurkeztu aurretik, hauteskunde primarioak (*primaries* edo *nominating conventions*) egiten dira. *Partisan* sisteman, hauteskunde primarioek alderdi politikoei beren hautagaiak aurkezteko abagunea eskaintzen diete; *non partisan* sisteman, berriz, alderdi politikoei ez zaie uzten lehen aukeraketa horietan parte hartzen. Salbuespen bakarra Ohio da: Estatu honetan *partisan primary*-ak izaten dituzte, eta azken hautaketa *non partisan* izaten da.

Horretaz gain, epaileak aukeratzeko bidea alderdi politikoen partaidetzarekin edo berau gabe izan (*partisan* edo *non partisan* alegia), bi kasuetan, epaile bihurtu nahi duten hautagaiak kanpaina egin behar dute. Beren burua herriari "saldu" behar diote, honena baita azken hitza. Kanpaina hori zeharo desberdina da bi kasuetan: lehenengoan hautagaiak alderdi politikoen azpiegitura osoarekin jokatzeko duten bitartean, bigarrenetan, baliabideak, kasuan kasuko hautagaiak dituenak edo lor ditzakeenak baino ez dira. Edozein kasutan, dirutza handiak gastatzen dira publizitatean eta hitzaldien antolaketan. Abokatuak diru-laguntza asko ematen dituzte beraien gustuko hautagaien mesederako.

Honen harira, AEBetako Auzitegi Gorenak, ustelkeria ekiditeko asmoz, adierazi du Estatuak mugatu egin dezaketela hautagai batek pertsona jakin baten eskuetatik jaso dezakeen diru kantitatea. Agindu honek Estatu askotan izan du isla: hautagai bati, kanpaina, legez ezarritako kopuru jakin batetik gorako diru-laguntza eman dion pertsona bat epaile bihurtu den hautagai horren aurrean agertzen denean, bai abokatu moduan, bai alderdi moduan, epailea abstenitu egin behar da; bestela, errekusatu egin ahal izango da.

Kanpaina hauei dagokienez, *American Bar Association*-ek emandako, eta arestian aipatutako, *Model Code of Judicial Conduct*-ak debekatu egiten die epailetzarako hautagaien kanpaina zehar epailegora heltzen badira egiten dituzten gauza konkretuei buruz promes egitea; kasu konkretuei emango dieten ebazpenei buruz ezer esatea alegia. Horregatik, praktikan, hautagaiak, ematen dituzten hitzaldietan eta egiten duten propagandan, denek argudio berdinak erabiltzen dituzte: krimenaren eta delituaren aurka borrokatuko direla, justiziaren eta demokraziaren alde lan egiten dutela...

73. Hauek, salbuespen gutxi batzurekin, *non partisan election* erabiltzen dute epaitze organoak edo *trial court*-etako epaileak eta apelazio organoetako epaileak aukeratzeko.

74. Azken hiru Estatu hauek, eskumen orokorreko epaitze organo batzuetarako erabiltzen da.

Has gaitezen bi sistema hauen balorazioa- rekin. Ikusi dugunez, beraien arteko desberdinta- suna, teorian, alderdi politikoan babesa da. Azken ezaugarri honetaz lerro batzuk aurrerago arituko gara; orain, zentra gaitezen bi sistemek komune- an duten elementuan: hauteskundeetan.

Epaileak hauteskunde bidez erreklutatzeak, aukeraketa *partisan* izan edo ez, berauek tirano (*judicial tyrant*) ez bihurtzea bermatzen du. Hauteskundeak ospatzen direnean, ordurarte kar- guan egon den epaileak herriaren aurrean agertu beharko du, eta bere *tenure*-an zehar herriaren gustukoa ez den jarrera edo jokabideren bat izan badu, herriak, bere eskubidea egikaritzuz, kargutik kenduko du. Gainera, epaileak aldiro hautatzaile- en aurrean agertzeko beharrak eta berauen babe- sa lortu beharrak, komunitatetik urruntzea, botereaz abusatzea eta gehiegikerian erortzea ekiditen du. Bestalde, egia da epaileak aukeratze- ko hauteskudeak erabiltzea irekia (*open method*) eta demokratikoa dela, herri guztiak parte-hartzen baitu.

Honen inguruan, hauteskunde bidezko edo- zein aukeraketan, alderdi politikoak tartean agertu edo ez, arazo larriena hautatzaileen ardura falta da: hautatzaileei ez zaie batere axola hauteskun- de hauen emaitza. Honen isla, epailegorako hau- teskundeetan ematen den parte-hartze eskasa da. Fenomeno honen azalpenerako, beharbada garrantzitsua da hautatzaileek hautagaiei buruz duten informazio eskasia edo falta⁷⁵. Informazio falta hau, hauteskundeetan, zalantza izpirik gabe, memento horretara arte postu jakin batean epaile bezala aritu denaren mesedetan doa, normalean bere izena besteena baino ezagunagoa delako. Bestalde, hautesleek, askotan, hautagaiaren pres- takuntzaz haratiko bestelako datuen arabera ematen dute boza (famiariaren izen ona, telebistan duen irudia...).

Hala ere, eta hautesleek informazio egokia izan arren, sarri askotan zalantzan jartzen da hau- tagaiek epaile bezala aritzeko duten prestakuntza baloratzeko herri xumeak duen gaitasuna.

Beste alde batetik, bi sistemetan, hautes- kundeen funtsezko elementu edo osagai bezala, kanpaina egin behar da. Azken honek, eta zehaz- ki berau egin beharrak, oso ondo prestaturiko per- tsona asko epailetzarako hauteskundeetara ez aurkeztera eramaten ditu. Kanpaniak diru eta den- bora gastu izugarria suposatzen baditu, oraindik larriagoa da beren ogibidean izen oso oneko juris- tentzat kanpaina egitera makurtu beharra. Gainera, hauteskunde hauetan ematen den lehia

ez da orekatua izaten; izan ere, kanpaina beti baitago ordurarte epaile moduan ibili dena egoera mesedegarriagoan, jada ezaguna delako, berak ordurarte epailegoan egin dituen gauza onak "sal" ditzakeelako edo eta egindako kalteak legearen imperfekziopean zuri ditzakeelako.

Honi guztiari, epaileen izendapenaren epe- ari lotuta dagoen beste iruzkin bat gehitu behar diogu. Epaileak laburragoa edo luzeagoa den epe baterako izendatzen dira, eta, epe hori agortzean, berriro hauteskundeetara aurkeztu beharko dira. Aldikako berrautaketa hauek, batez ere sarri askotan emanez gero, oso astunak egiten zaizkie jada epailetzaren parte direnei, eta sarritan kar- gua uztea edo berrautaketara ez aurkeztea eraba- kitzen dute. Arrazoi bera aipa genezake epailegotik kanpo dagoen pertsona bat hautes- kundeetara ez aurkezteko. Egoera honek ez du larregi animatzen bestelako arrakastaz jositako karrera profesional bat alde batera uzteko.

Epe luzeek (*long tenure*), 10 urtetik gorako- ek, epaileen berrautaketak errazten dituzte, gutxi- tu egiten baitituzte hauteskunde kanpainen eragin negatiboak eta beraietarako beharrezkoa den diru kopurua. Nahiz eta epaileak komunitatetik isola- tzeko arriskua izan, epaileek, berrautaketaren pentsutan egon beharrean legearen aplikazioan zentra daitezkeen heinean, areagotu egiten dute beren independentzia. Urte askotako izendapena- rekin, epaileen erantzukizuna ere polito babesten da; izan ere, aldikako hauteskundeetan, herriak epaileen jokaera eta jarduera baloratzeko beta egokia izaten baitu.

Epe laburrek, aldiz, epaileen presioa gehi- tzen dute, honek bere independentzian suposa- tzen duen higadurarekin: beraien erabakiak emateko orduan herriari so egoten dira, herria baita beren lanpostuan mantenduko dituen. Kanpainak ugariagoak dira, eta diru gehiago behar da. Epe laburreko izendapenak, zalantza gabe, ez dira erakargarriak epaileentzat, ziurtasun laborala gutxitzen dutelako.

Edozen kasutan, eta praktikak argi erakus- ten duenez, hauteskundeek, orokorrean, beren arteko denbora tartea edozein izanda ere, gutxitu egiten dute epaileen partzialitatea. Epaileek, Zuzenbidea aplikatzerakoan, Zuzenbidearen ara- berako beren iritzi garbiei bakarrik so egin beha- rrean, erabakiak komunitatearen aldetik jasoko duen erantzunari erreparatzen diote, eta horrek baldintzatu egiten ditu beren erabakiak. Hauteskunde hauek ondorioz, epaileak herriaren gustukoak baina legearen eta moralaren kontra- koak diren erabakiak ematera bultzatzen ditzake.

75. Hautatzaileen bozaren eta daukaten informazioaren arteko harremana era xeble batean azaltzen du EPSTEIN, L. *Contemplating courts*, Washington, D.C.: A division of congressional quarterly, Inc, 1995; 41 eta hurrengo orrialdeetan. Ikus, baita, SARGENTICH, T.O. et al., *Uncertain justice. Politics and america's court*, New York: The century foundation, 2000; 98. or. Azken hauen aburuz, hautesleak informatzeko era bat, *bar*-ek egiten dituzten hautagaien ebaluazioak berauei luzatzea izan daiteke.

Epailtzarako hauteskundearen fenomenoak aztertuta, ikus dezagun orain beraietan alderdi politikoei duten parte-hartzea. *Partisan election* edo epaileen aukeraketa politikoen alde esan daiteke egia dela gizarte osoarengan eragina duten erabakiak hartzen dituzten heinean nolabait epaileek politika egiten dutela (*policymaker*). Irakurketa horren islan uler daitezke kanpainen alderdi politikoen babesa, epaileak berauek egingo duten politikaren pairatzaileak izango diren pertsonen zuzenki aukeratzea, eta, era berean, beren aurrean erantzule izatea.

Gainera, hautagaiak alderdi politiko batekin indentifikatzeak, lagundu egiten die hautesleei hautagaien ideologia ezagutzen, eta irizpide garrantzitsua bihurtzeko beren boza erabakitzeko orduan. Baina arrazoi aunitz ematen dira epaileak erreklutatze alderdi politikoen babesean egindako bide honen kontra⁷⁶.

Metodo honek ez du bermatzen pertsonarik prestatuenak aukeratzeko diren epaile, hautagaiak alderdi politikoen iragazkitik baino ez baitira pasatzen⁷⁷. Ez du bermatzen, ezta ere, gizarteko alderdi, etnia eta arraza guztietako ordezkariak helduko diren epailegora.

Egia da, bestalde, sistema honek epaileen partzialitatea kolokan jartzen duela. Epaileak alderdi politikoen buruek aukeratu dituzte *primary*-etan, sarri askotan ez beraien merituen ordainean, baizik eta arrazoi politikoengatik. Ez da oso zuzurra izan behar konturatzeko epailegora sartzea lortzen duen hautagaia esker onekoa (partziala?) izango dela bera aukeratu duten alderdi politikoko arduradunekin eta bere kanpainan finantziatu duten abokatuekin⁷⁸.

Non partisan election metodoari buruz, hautagaiak alderdi politiko baten babesean ez agertzeak aurretiaz suposatzen duen partzialitatea goraipatu badaiteke ere, gainerako guztian, hauteskundeak ospatu behar diren heinean eta kanpaina beharrezkoa den neurrian, *partisan election*-ari egiten zaizkion kritikak egin behar zaizkio. Gainera, askotan, hautagaiak alderdi politiko baten babesean agertzen ez badira ere, praktikan beraiekin erlazionatzen dituzte, hautesleek, beren prestakuntzari baino, ideologia politikoari gehiago erreparatzen baitiote.

5.3. Appointment edo izendapena

Zenbait Estatutan, auzitegi federaletako epaileak erreklutatze bidea ihakindatuz, agintari batek, exekutiboko buruak edo honen ordezkari batek, tokian tokiko organo legegileak edo epaileak berak, zuzenean izendatzen ditu epaileak, herriaren inolako parte-hartze zuzenik gabe.

Aukeraketa metodo honetan izendapena egiten duen organoaren arabera, hiru metodo desberdin behar ditugu:

5.3.1. Legislative appointment of judges edo botere legegileak egindako izendapena

Egun, hiru Estatutan (Rhode Island, South Carolina eta Virginian) erabiltzen da epaileak erreklutatze bide hau, aipatutako lehenengo Estatuak metodo honen bidez bere *Supreme Court*-eko epaileak bakarrik aukeratu baditu ere. Nahiz eta izendapenaren inguruko azken erabakia ganberak osoko bilkuran hartu, aurreko pauso guztien ardura (pertsona egokiak aukeratzeko, entzunaldiak egitea...), Federazioan epaileen aukeraketan Senatuan gertatzen den moduan, aipatutako hiru Estatu hauetan ere, horretarako berriaz sorturiko batzorde batean (*legislative committee*) gelditzen da.

Metodo honen kontra, bere politizazio nabarmena ekartzen da mahai gainera. Hala ere, politizazio honen gainean irakurketa bikoitza egin daiteke. Egia da ganberetan alderdi politikoak ordezkatu dituzten legelariak hautatu dituzte la epaileak, baina ez da gezurra, ezta ere, legelari horiek herriaren ordezkariak diren; beraz, azken finean, herriaren ordezkari diren legelariak aukeratu dituzte epaileak, teorian epaileak beharrezkoa duten prestakuntzari buruz herritar xumeek baino gehiago dakitenek. Honen inguruan, Estatu epailetzako kideak aukeratzeko legelariak duten gaitasuna zalantzan jarriz gero, metodo honetan arrakala ikaragarria soma dezakegu. Eta horri gehitzen badiogu hautatutako epaileak beraiek aukeratu dituzten legelarien alderdi politikoekiko duten zorra, pitzadura hori nabarmenki hazten da.

76. RENÉ DAVIS, *Los grandes sistemas contemporáneos (derecho comparado)*, Madrid: Editorial Aguilar, 1970; 339. orrialdea. SCHOTLAND, *Elective judges campaign financing: are state judges robes the emperor's clothes of American democracy?*, *Journal of Law and politics*, spring 1985, 57-167. orr.

77. ESPARZA LEIBAR, I. "Sobre el procedimiento de selección del personal jurisdiccional en los Estados Unidos de Norteamérica", In: *Poder Judicial* 36/1994. Zentzu berean, HAROLD J. BERMAN (Edit), *Talks on american law. A series of broadcasts to foreign audiences by members of the Harvard Law School Faculty*, New York: Vintage books, 1961; 28. orrialdean dioenez, hauteskundearen erabilerak, toki askotan, politikoki oso eragingarriak diren erdi mailako epaileak izendatzera eramaten du.

78. 1999. urtean *Texas Supreme Court* eta *Texas State Bar*-en jokaera aztertu zuen inkesta baten esanetan, aipatutako Estatu epaileen %48k uste du epaileen hauteskunde kanpainen egiten diren ekarpenek eragin zuzena dutela epaileen erabakietan. Ikus SUPREME COURT OF TEXAS, STATE BAR OF TEXAS, TEXAS OFFICE OF COURT ADMINISTRATION, *The courts and the legal profession in Texas. The insider's perspective: a survey of judges, court personnel and attorneys*, Texas: Austin, May 1999; 5. orr.

5.3.2. *Executive appointment of judges* edo botere exekutiboak egindako izendapena

Beste Estatu batzuetan, epaileak Estatuko botere exekutiboaren buru den *governor*-ak izendatzen ditu, berak bakarrik edo batzorde berezi baten (*judicial nominating commission*) laguntzarekin. Estatu batzuetan, exekutiboak izendapenaren inguruan hartutako erabakiak Estatu horretako botere legegilearen adostasuna edo berrespena behar du, eta besteetan ez.

Governor-ak eginiko apelazio epaileen izendapenek, eraginkorrak izateko, botere legegilearen berrespena behar dute, esate baterako, Delawar, District of Columbia, Hawaii, Maryland, Missouri, New Jersey, Utah, Vermont eta Wyomingen. Aldiz, ez dute onespenez behar Alaska, Colorado, Florida, Indiana, Iowa, Kansas, Maine eta Nebraskan⁷⁹.

Metodo honen harira, jada esanda badago ere, azpimarratu behar da Estatu askotan, nahiz eta epaileak behin betiko (*final election*) izendatzeko beste metodo desberdin bat erabili, epailegoan sor daitezkeen hutsuneak behin-behinean eta epaile titularra izendatu arte betetzeko (*initial election*), *executive appointment* metodo hau erabiltzen dela⁸⁰.

Erreklutazio bide honen kontra ere, eta itxarrotekoa zenez, bere politizazio maila altua alegatzen da. Posible da gobernadoreak, beste irizpide batzuk (prestakuntza, gaitasuna...) alde batera utzita, bere lagun bat epaile izendatzea, edo epailetza mesede politikoak ordaintzeko sari bezala erabiltzea, baina, edozein kasutan, Estatu askotan, ganbera legegileen berrespenaren beharrak mugatu egiten du gobernadorearen ahalmena. Bestalde, erreklutatze bide honetan ere, epailea, izendatu duen pertsona, batzar edo dagokion talde politikoarekin zorretan egongo da, eta horrek kaltetu egin dezake bere inpartzialtasuna. Horregatik, oro har metodo honek ez du ziurtatzen epailerik trebe eta independenteenak izendatuko direnik⁸¹.

Kontrakoak alde batera utzita, sistema honen alde arrazoi ugari aurkez daitezke: gobernadoreak, bere aholkulari taldearen laguntzaz, pertsona benetan jantziak izenda ditzake; gizarteko talde, etnia, arraza eta sentsibilitateak ordezkatzeko dituen epaileak izenda daitezke... Gainera, ondo prestatutako pertsonak, legeetan oso jantziak direnek, nahiago izaten dute izendatuak izan aukeratuak baino, lehenengoak suposatzen duen ohoreagatik, eta hauteskondeek orokorrean eta kanpainen zehazki dakartzaten kalteengatik.

5.3.3. *Judicial appointment of judges* edo epailetzak eginiko izendapenak

Epaileek beraiek egindako beste epaile batzuen izendapenak oso urriak dira AEBetan. Illinois eta Louisianako zenbait organoetako epaileak behin-behinean, titularrak aukeratu arte, erreklutatze (*initial election*) bakarrik erabiltzen dira.

Epaileek berek eginiko izendapen hauen alde esan behar da hautatzaileek, egin beharreko lana arras ongi ezagututa, hautaketa egiteko orduan hautagairik onena izenda dezaketela.

5.4. *Merit selection* edo merituen araberakoa

Epaileak erreklutatze sistema hau, arinago azaldutako beste bien arteko nahasketa bat besterik ez da. *Election* eta *appointment* sistemen desabantailak alde batera utzita, eta abantailak hartuz, unibertsitateko irakasle batek, J. Kales-ek 1914. urtean formulatu zuen, eta, 1937. urtean ABAREN babesa lortu eta gero, lehen aldiz Missouri Estatuan erabili zen, 1940. urtean. Horregatik, *Missouri Plan* izenarekin ere ezaguna da.

Egun Estatu askotan (Alaska, Arizona, Colorado, Connecticut, Delaware, Hawaii, Iowa, Kansas, Utah...) organo ezberdinetako epaileak aukeratzeko erabiltzen den erreklutazio bide honek hiru ezaugarri ditu. Ezaugarri bakoitza azaldu ondoren, erraz ulertuko dugu sistema osoa.

1. Lehen aukeraketa bat egiten duen epaileen izendatze batzorde edo *Judicial nomination committee* baten existentzia.

Epaileak aukeratzeko metodo hau jarraitzen duten Estatuetan batzorde berezi bat izaten da, epaile plaza bat hutsik gelditzen denean lanpostu horretarako hautagaiak bilatzeaz arduratzen dena. Nondik ataritzen dira hautagaiak? Batzordea bera zuzenean jar daiteke harremanetan hautagaiekin, beren prestakuntza epailetzarako egokia iruditzen zaiolako, edo epaile izan nahi duen edonork aurkez diezaioke bere burua batzordeari.

Batzordeak, hautagaien egokitasuna aztertu ondoren, bete beharreko plaza bakoitzeko hiru azken hautagai izendatuko ditu.

Tokian tokiko eman daitezkeen desberdintasunekin, *Judicial nomination committee* hauek abokatuek, laikoek (ez-abokatuek) eta epaileek osatzen dituzte. Hauetariko bakoitzaren kopurua

79. Kasu guztietan, eta adibide gisa, apelazio auzitegietak epaileen aukeraketaz ari gara.

80. COMISKY, M.; PATTERSON, P. C. *The judiciary: selection, compensation, ethics and discipline*, New York: Quorum books, 1986, 8. or.

81. SARGENTICH, T. et al. *Uncertain justice. Politics and america's court*, New York: The century foundation press, 2000; 89. or.

ezberdina da Estatu bakoitzean, baina, normalean, abokatu eta laikoen kopurua berdina izaten da, eta presidente lanak egiten dituen epaile bakar bat egoten da. Eredu honi erantzuten dio, adibidez, Wyomingeko epaileen izendapen batzordeak: 7 kide ditu, 3 abokatu, Estatuko *bar*-eko kideak eta elkargoak berak aukeratuak, gobernatzailerak izendatutako 3 kide laiko eta Estatu horretako *Supreme Court*-eko burua den *Chief Justice*-a⁸². Azken hau da batzordearen burua.

Estaturik gehienetan, izendapenez ardura-zen den batzorde bakar bat egoten da, baina, zenbaitetan, Missourin bertan adibidez, bi izaten dira: bat lehen mailako auzitegi-tako epaileak aukeratzeko (*trial judges*), eta beste bat apelazio organoetan zerbitzatzen duten epaileak aukeratzeko (*appellate judges*).

2. Azken aukeraketa egiten duen izendatzaile ofiziala edo *elected appointing official*.

Appointment sisteman gertatzen den bezala, agintari batek, normalean Estatuko botere exekutiboko burua den *governor*-ak, batzordeak aukeratzeko hiru pertsonen artean azken erabakia hartzen du, berauetariko bat aukeratzu.

Zortzi Estatutan, gobernatzailerak egindako izendapena berretsi egin behar da. Horrela, Senatuaren berrespena galdatzen da District of Columbia-n, Hawaii-n, Marylanden, Montanan, New Yorken, Pennsylvanian eta Vermonten. Massachusettsen *Governor's council*-aren⁸³ berrespena aurreikusten da. Hala ere, orokorrean ez denez berrespen hori eskatzen, epaileen presio politikoa izugarri jaisten da, eta partzialtasuna irabazten dute.

Estatuko Konstituzioa eta Federazioko Konstituzioa errespetatuko dituela zin egin ondoren, gobernatzailerak aukeratu epe jakin baterako epaile izendatua izango da.

3. *Noncompetitive Retention election*

Gobernatzailerak izendatutako epaileak epe batez zerbitzatuko du, proba moduan. Epe hau luzeagoa edo laburragoa izan daiteke, tokian tokiko⁸⁴. Denbora hori agortzean, bere burua beren bereki hautesleen azterketara aurkeztuko du, azken hauek beren onespina emateko (*appro-*

va). Hautesleei egingo zaien galdera ondokoa da: "X auzitegian zerbitzatzen duen X epailea bere karguan mantendu (*retain*) behar al da?"⁸⁵. Beraz, eta galdera horretatik erraz ondoriozta dezakegunez, epaileak ez du beste epaile batekin edo bes-telako hautagaiekin lehiatu beharko. Karguan egon den denboran egindako ekintzen ondorioei aurre egin besterik ez du egin beharko. Aipatutako galderari, hautesleek baiezkoa edo ezezkoa erantzungo diote. Baiezkoak irabaziz gero, epailea *term*⁸⁶ oso batez arituko da.

Term hauek, metodo honetan, luzeak izaten dira (8 eta 12 urte bitartean); horrela, epaileen independentzia arras ondo bermatzen da. Epe hori bukatzean, epailea berriro aurkeztu beharko da *retention election* horretara (*uncontested retention ballot*). Oraingoan ere biztanleriaren gehien-goaren babesa lortuz gero, beste *term* batez zerbitzatuko du. Horrela, epaileak urte askotan egon daitezke epailegoan, beraien beren borondatez kargua utzi arte edo herriak bere babesa kendu arte.

Zer gertatzen da *retention election* bat gal-tzen bada? Kasu horretan, epailearen postua hutsik geldituko da, eta dagokion *nonimaging committee*-a kargua beteko duen epaile berri baten bila hasi beharko da.

Praktikan, *retention election* hauek ez dute herriaren interesa bereganatzen, ezta diru-lagun-tzarik ere. Zioz, berauetan nazio osoko Estatu desberdinetako epaileen %1 baino ez da bere kargutik kanpo geratzen⁸⁷.

Estaturik Estatu, metodo honek, beste biak bezala, aldagai asko ditu. Horren adierazle, Estatu batzuek ez dute *noncompetitive retention* hau. Horrela gertatzen da, adibidez, Delawaren, District of Columbia-n, Hawaii-n, Massachussetsen edo New Yorken.

Missouri plan honen ezaugarriak aztertu ondoren, eta bere balorazioari ekinez, bere alde baiezta daiteke, orokorrean eta jarraian egingo ditugun matizazioak egin baino lehen, epaileen prestakuntzaren balorazioan adituei paper garrantzitsua ematen zaiela, *appointment* metodoan bezala. Gainera, *election* metodoan gertatzen den legez, epaileak aldiro beren hautesleen aurrean agertu behar dira, eta honek epaileen erantzukizuna areagotzen eta tirania baztertzeko laguntzen du.

82. Eskema hau Estatu gehienetan jarraitzen da: kide laikoak, Estatuko botere exekutiboko buruak, *governor*-ak, edo bere ordezkariaren batek izendatzen ditu, eta batzordeko buruzagitzak lanetan diharduen epailea *ex officio* aukeratzeko da.

83. Hemengo Ministroen Kontseiluaren parekoa.

84. Epe hau Tennesseeen 30 egunekoa da. Florida, Iowa, Kansas, Maryland, Missouri, Oklahoma, eta Wyoming, berriz, urte batekoa. Bi urtekoa da Arizona, Colorado eta Indianan, eta hirukoa Alaska, Nebraska eta South Dakotan.

85. "Shall judge xxx be retained as a judge of the XXX court?"

86. Gogoratu, jada esanda dagoenez, epaileak epaile lanetan, karguan alegia, diharduen denborari deitzen zaiola *term*.

87. ROTTMAN, D. B.; FLANGO, C. R.; CANTRELL, M. T.; HANSEN, R.; LAFOUNTAIN, N. *State Court organization 1998*, Washington, D.C.: US Department of justice, Office of justice programs, Bureau of Justice Statistic, 2000.

Azkenik, *term* luzeek, esan bezalaxe, epaileen independentzia bermatzen dute: epaileak legearen arabera eta herritarren aurreiritziak alde batera utzita jardun dezakete, hurrengo *retention election*-ean beren kargua galtzeko beldurrik gabe.

Aurrekoak esan ondoren, ezin gara lasai gelditu. Kritikak ere egin daitezke. Batetik, sistema honek ez du epaileen erreklutazio bideetatik eragin politikoa kentzen. Politika eta politikarien eragina, alde batetik, *bar*-aren bitartez soma daiteke: Estatuetakoa alderdi politikoak, *bar*-ek *nominating comitee* horietan dituzten ordezkarien bitartez, epaileen hautaketa prozesuan eragina izaten ahalgintzen dira. Eragin hori are nabarmenagoa da *governor* edo izendatzaile ofizialaren jardueran; honek praktikan kasik beti bere alderdi politikoko epaileak aukeratzen baititu. Horretaz gain, eta aurrekoak gutxi badira, metodo honen ezaugarri diren *retention election* horietan, hautagai bakoi-tza ideologia batekin lotzen da, eta hautesleek beren ideologia politikoa duten hautagaiak bozkatzten dituzte. Gainera, *retention* hauetan eragin handia izaten dute talde sozial desberdinek (abortoaren aldekoek eta kontrakoek, heriotza zigorraren aldekoek eta kontrakoek...), askotan diruzta izugarrien laguntzaz, eta gai jakin baten inguruko erreferendum bihurtzen dituzte *retention election*-ak. Ondorioz, eta erratzeko beldurrik gabe, baiezta genezake metodo honetan, erantzukizuna areagotzeko bidean, independentzia galtzen dela: politikaren aurrean, Zuzenbideak galdu egiten du.

Bestalde, *Judicial nomination committee* horiek ere kritikagarriak dira oso: aipatutako *bar*-aren ondoriozko eragin politikoari, abokatuek batzarrean erabakitzeke orduan duten pisuari so egin behar zaio. Orokorrean, abokatuek erraz konbentzitzen dituzte laikoak hautagaien aukeraketan, Zuzenbidean adituak ez direla eta, erabakiaren pisua normalean ados egoten diren abokatu eta epailearen eskuetan uzten baitute. Zentzu honetan, ezin daiteke ukatu laikoak Zuzenbidean adituak ez direnez, desabantaila dutela hautagaien prestakuntza baloratzeko.

5.5. Estatuetakoa epaileen bazterketa edo *removal*

Estatu Federatuek epaileak aukeratzeko metodo desberdinak badituzte, berdina gertatzen da epaileak beren kargutik kentzeko bideekin. Oro har, eta asko laburtuz, tokian tokiko lau bide aipatu behar ditugu Estatuetakoa epaileak beren kargutik baztertzeko (*removal*):

a) *Impeachment*: Estatu gehienek, beren organo legegileetan buruturiko epaiketa berezien

bitartez bazter ditzakete beren epaileak. Horretarako, ganberak *Court of Impeachment* edo *Court of Judiciary* bezala aritzen dira. Estatuetakoa *Impeachment* prozedura, Federazioarenaren oso antzekoa da (arrazoiak, prozedura...). Desberdintasun nagusiak, beharrezko gehiengoe-tan ematen dira⁸⁸.

b) *Legislative address: Removal* bide hau ez da delitu larrien kasuetan erabiltzen, horietarako *Impeachment*-a erabiltzen baita. Bide hau, batez ere, gaitasun eza, eromen eta partzialitate kasuetan erabiltzen da.

Epaileak baztertzeko metodo honi jarraituz, *governor* batek epaile bat bere kargutik kendu ahal izango du bi ganbera legegileek, erabaki baten bidez, horrela eskatzen badiote. Ganbera hauek, erabakia, gehiengo jakin batez hartu behar dute (normalean, 2/3). New Yorken alderantziz gertatzen da: gobernatzailerak Senatuari epaile bat bere kargutik kentzeko egindako eskaerak Senatuko botoen bi herenen babesa lortzen badu, epaile bat bere postutik kendu ahal izango da. Ohio eta Tennesseeen, berriz, bi ganberen erabakia nahikoa da epaile bat baztertzeko, gobernatzaileraren inolako parte-hartzerik gabe.

c) *Recall*: Epaileak baztertzeko hirugarren metodo hau ez da epaileak botatzeko bakarrik erabiltzen; gainerako *officials*-ak botatzeko ere erabil daiteke. Bide honen ardatza *recall* eskaria edo *recall petition* delakoa da: biztanleria kopuru batek epaile baten kontra sinadura kopuru minimo bat bilduz gero, epaile horrek *retention election* bati aurre egin beharko dio. Kasu honetan, galdera ondokoa izango da: "X epailea bere X organoko kargutik kendu behar al da?"⁸⁹. Galdera honi, jakina denez, hautesleek baiezkoa edo ezezkoa emango diote. Baiezkoak irabaziz gero, epaileak, hurrengo hauteskunde orokorretan, bere postua utzi beharko du.

Sistema hau benetan bitxia da. Bere oinarria, epaileak aukeratzeko *election* bidearen bera da: epaileak, politika egiten dutenez, politika hori jasan behar dutenek aukeratu behar dituzte; herriak alegia. Era berean, politika hori desegokia bada, herriak epailea bere kargutik ken dezake.

Fenomenoa hain da deigarria, adibide bat jartzea, egokia baino gehiago, beharrezkoa iruditzen zaigula: 1977. urtean, Wisconsin Estatuak Archie Simonson epaileak, emakume baten bortxaketaren inguruko epaian, emakume horrek entzunaldian jantzita zeraman arroparen gaineko iruzkin matxista batzuk egin ondoren, talde feminista batzuek sinadurak bildu eta *retention election* batera bidali zuten. Epaileak utzi egin behar izan zuen bere kargua⁹⁰.

88. Puntu honetan sakontzeko, ikus BINGHAM, R. D. *State and local government in an urban society*, New York: Random House, 1986; 223. or. eta hurrengoak.

89. "Shall judge X of the State XX court be removed from the office?"

ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: epailetzara sarrera (2). *Eleria*. 12, 2004, 33-54

d) *Judicial Conduct Board/Commission*: Azken hau da epaileak beren kargutik kentzeko gehien erabiltzen den bidea. Estatuetan, epaileen diziplinaz arduratzen diren batzorde administrati- bo bereziak sortu dira. Epaile bati egintza edo jar- duera txar bat leporatzen bazaio, *board* honek neurriak har ditzake: errieta publikoa edo pribatua, esekipena, derrigorrezko erretiroa, *Impeachment* edo *legislative address* prozesu bati hasiera ema- tea...

6. Ondorioak eta balorazioa

Helduak gara azken hitza emateko abagu- nera. Jada larregi luzatu garenez, eta irakurlearen eroapenari erregu eginez, bi hitz esanen ditugu.

Gure erreklutazio bideetatik hain desberdi- nak diren amerikar erreklutazio metodoak aztertu ditugu. Jakin badakigu justiziaren kalitatea, azken finean, edo hein handi batean behintzat, berau zerbitzatzen duten epaileen kalitateak baldintza- tzen duela. Horretatik guztitik abiatu, kontinen- teko jurista batentzat, zalantzarik gabe, AEBetako epaileak aukeratzeko bideetatik ziur asko gauza bi dira deigarrienak. Batetik, eragin politikoa. Bestetik, erreklutazio bide kopurua.

Lehenengoari dagokionez, lerro hauen bukaeran balantze orekatu bat egin behar da. Egia da politikak eta berak daramatzen inguru- mari guztiek sarri askotan kolokan jartzen dutela epaileen partzialitatea. Askok mintzatu gara horre- taz –eta baita kritikatu ere!–, baina, maila berean, egia da, baita ere, herritarrek, zuzenean hautes- kundeen bidez edo zeharka aukeratutako aginta- riek (exekutiboak eta legegileak) izendatutako epaileak, bereak propioak izango balira bezala sentitzen dituztela. Beraiek jartzen dituzte, eta beraiek kendu ahal dituzte –gogoratu *recall*-az hitz egitean jarritako adibidea!–. Amerikar herritar xumeek epaileekiko duten sentimendu hau oso urruti ikusten da kontinentean, eta, duda izpirik gabe, auzitegi antolaketa baten eraginkortasune- rako funtsezko elementua da. Honekin estuki loturik, harrigarria da oso AEBetan epaileek “kargu” bat dutela esatea, baina horrela da: ez bakarrik luzeagoa edo laburragoa izan daitekeen denbora tarte batean aritzen direlako, baizik eta herriak berak ematen dielako lanpostua, herriak berak mantendu eta herriak berak kentzen ditue- lako.

Erreklutazio bideen kopuruari, beraien arte- ko nahasketari, eta horien berezitasunari buruz Sheldon Goldman unibertsitateko irakasleak dioen

bezala, aho batez onartu behar dugu ez dagoela besteak baino askoz hobea den metodorik, epaile prestatuenen eta jantziaren hautaketa bermatzen duenik⁹¹. Hau ere agerian utzi dugu bide guztien azalpenaren atzetik hamaika kritika erantsiz.

Bukatzeko, eta Federazio mailako epaileei dagokienez, hausnarketa edo gogoeta bakar bat: ikusi dugun bezala, epaile federalek, orokorrean, *legislative courts*-etan aritzen direnak kenduta, biziarteko izendapena izaten dute. Nola ziurta dai- teke horrela justizia federalaren eguneratzea? Ez al da hori izango askotan txundituta entzuten ditu- gun federazio auzitegien sententzia atzerakoi eta zaharkituen arrazoiak?

90. Kuriositate bezala, ikus hemerotekan “Outsted judge in rape case says feminists will stoop to any low”, In: *New York times*, 1978.eko urriaren 4koa, 4. or.

91. GODLMAN, S. “Judicial Selection and the qualities that make a “good judge””, In: *Annals of the American Academy of political and social science*, 462 zenb. (july 1982).